



365 egun  
jaien alde  
lanean



# Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia  
Begi lehorraren tratamendua



AMAÑAKO JAIKAK 40 URTE EIBARTAR GUZTIONTZAT

herri-kirrolak bazkariak entzierroak



jotak puzgarriak kalejirak berbenak

kontzertuak pailazoak danborradak suak txupinazoa

...eta kitto!-ren

itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelerara,  
gazteleratik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.



[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## - Giza katearen zozketako sariak erreklamatzeko epea amaitzar-

Gure Esku Dagoren ekimenez ekainaren 10ean egin zen Giza Katearen harira zozketa egin zuten eta hauek izan ziren zenbaki sarituak rifan: 730 eta 606 / Ordezkoak: 330 eta 376. Bigarren sariaren (606) eta bigarren erreserbaren (376) irabazleak

agertu dira, baina lehen sariaren irabazlea (730) eta lehen erreserbaren jabea (330) ez dira oraindik agertu eta sariak erreklamatzeko azken eguna uz-tailaren 10a izango dela gogorarazi nahi dute.

Eibarko Gure Esku Dago

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MARDO.** - Asko, ugari. "Mardo emoixozu emon bihar jakona".

Itxura onekoa, mardula. "Etzian ebela neskame mardo eta itxura onekoa".

**MARDO MARDO.** - Ondo beteta, gainezka. "Mardo mardo neurrittuta saltzen eban harek gauzia".

### astean esanak

"Japoniarrek lortu dute sinpatia asko jasotzea euren alde eta zezozteratik da. Munduko txapelketatik kanporatuta, zaleen eta jokalarien garbitasuna eta errespetua nabarmendu dituzte komunikabideek. Jokatutako lau partiduetan euren iradurak gradetan dena jasotzeaz gain, ikustekoa izan dela aldagela zein garbi utzi zuten! Eta hori gutxi balitz, 'eskerrik asko' zioen kartela ere laga zuten, errusieraz idatzia. Gure alaba txikiak zioen japoniar denak aurpegiz berdina direla. Nik ezetz esaten nion. Orain badakit zer erantzun: euren artean ez dakit, baina gugandik zerk bereizten dituen irakatsi didate"

(AMAIJA AGIRRE, BERTSOLARIA)

"Animalien munduan badira jarrera homosexualak, bisexualak eta intersexualak eta guztiz naturalak dira. Arazoa da gizakion artean diskurtso homofoboa eta, batez ere, transfobikoa izan dela nagusitu dena. Horrela, naturak homosexualitatea ez duela onartzen esaten denean jakin behar dugu hori gezurra dela; ez da animalia guztietan ematen, baina egon badago. Osloko Unibertsitateko Petter Buckman irakasleak jarrera homosexualak duten 1.300 espezie zenbatu ditu: antzarren artean (monogamoak dira eta bikotearekin bizi dira berau hil arte), %30 sexu bereko bikotearekin bizi dira; bonobo tximino espeziean, harreman sexualen %60 emeen artekoak izaten dira"

(JAVIER ARMENTIA, ASTROFISIKOIA)

"Gogor egiten da 75 urtera arte lan egingo dugula entzutea, baina ez da hainbesteko. Orain artekoan, 20 urtera arte zaindu egiten gintuzten eta ikasi egiten genuen; 20 urtetik 60era arte lan egiten genuen; eta gero erretiratu eta 80 urterekin hiltzen ginen. Ikusten dugunez, 40 urtetan zaintzen zintuzten eta beste 40 urte behar ematen zenituen. Hemendik aurrera tarte horiek 50 urtekoak izango dira: 25 urte besteen menpe, 50 lan eginez, eta beste 25 jubilatuta, hil arte. Bizitzaren erdia lanean jarduteko prest bagoaude, pentsioen egoerari eutsi ahal izango diegu. Gure belaunaldia jabetu behar da gero eta jende nagusiagoz arduratu beharko dela: zerbitzu horiek Estatuak bermatzea edo guk kudeatzea da kontua"

(ANDREAS BERGH, EKONOMILARIA)

**AMAGIOIA GOMEZ**

### **Eta zu... animatzen zara?**

Imajinatuko duzue iritzi artikulu bat idaztea eskatzen dizutenean zein den burura datorkizun lehenengo zalantza, ezta? Ba hori bera etorri zitzaidan niri ere. Zeri buruz idatziko dut nik orain? Gaur egunean oso erraz idazten dugu gure iritzia sare sozialetan eta adituak ematen dugu edozein gairi buruz gure gogoeta egitean. Gainera, badirudi haserrarazten gaituzten gero eta gai gehiago daudela eta beraz, gure iritzia askotan gure gaizkiegona islatzeko erabiltzen dugu. Badakit askoren ustez gizartea ustelduta dagoela, politikak eta justiziak gutxi batzuen interesa asetzeko balio duela, gero eta balore gutxiago dauzkagula, ingurumena hondatzen ari garela eta 2050. urtean gure itsasoetan arrainak baino plastiko gehiago egongo direla. Baina zerbait ondo ere egiten egongo gara, ezta? Pentsatu, pentsatu. Astindu zeure burua. Bai, niri ere zaila egin zait hainbeste iluntasunen artean argia topatzea. Badirudi dena gaizki egiten ari garela eta gainera ez dugula ezer egin nahi hori aldatzeko. Ba, ez da horrela. Norbanako asko dago hau aldatzeko lanean, besteei laguntzeko prest, kalera atera eta beraren onena ematen duena, ixilean. Hitzetatik ekintzetara. Utz diezaiozun kexatzeari eta pasa gaitezen ekintzetara. Galeanoren hitzak gogora ditzagun: "Norbanako gutxi batzuk gauza txikiak egiten mundua alda dezakete". Animatzen zara?

## **Automobil batzuren gaiñian jausi zan arbolia**

Arraterako bidian, Itzioko aparkalekuan eguazen automobilten gaiñian arbola erori zan eguazten arratsaldian eta, horrek eraginda, bizpahiru auto kaltetu ziran eta, gaiñera, Arraterako bidia trafikua eragozteko moztu bihar izan eben. Ezbeharra 17:00ak aldera gertatu zan eta, zuhaitza kendu eta errepidia atzera be zabaldu arte bi ordu pasau ziran. Udal-tzaiñak abisua jaso eta gero, Foru Aldundiko bihargiñak jardun eben zuhaitza errepidetik kentzen. Zorionez ez zan iñor zauritu eta, Udal-tzaingotik azaldu dabenez, automobilletan gertatu diran kaltiak be ariñak izan dira.



asteko  
**4.000.000**  
datua

*euro ordainduko dittu Udalak Ipuruako mojen komentuko lurrengaittik. 2009. urtiz geroztik terrenuak erabilli barik dagoz eta, kirol-instalaziñuetarako erabilli nahi dabenez, azkenian desjabetzia egittia erabagi dabe.*

## **Untzagako jubilauetako fatxadan eguan argazkixa kendu dau Udalak**



Oin dala egun batzuk arte Untzagako jubilau etxeko fatxadia apaintzen egon dan antziñako argazkixa aste honen hasieran kendu egin dabe, jubilau etxera juaten diranak Udalarri hala eskatu detse-eta. Diñuenez, bero egitten dabenian negutegi-efektua eragiten eban erretratuak eta, horregatik, kentzeko eskaeria egin eben jubilauak. Kendu daben argazkixak 1910. urteko irudixa erakusten dau eta abenduan ipiñi eben fatxadia apaintzen, Ego Ibarra batzordiarren ekimenez Ei-

barko memorixa bisuala indartzeko proiektuaren barruan. Untzagan ez eze, beste bost tokittan ipiñi zittuen erretratu zahar haundixak: Ipurua foball zelaixaren fatxadan, Karmengo elizaren aldameñian, Unibertsitate Laboralaren azpizan, Azittango gasolineraren albo batian eta Toribio Etxebarria kalia. Udaletik azaldu dabenez, "eskutatuko moduan handik kendu dogu, baiña dana dala erretratu ipintzeko beste toki aproposagoren bat billatzeko asmua dakagu".

## Jose Miguel Amostegui Europako Parlamentuan



Amostegi eta Carmona adituak.

Aurreko astian, astelehen eta martitzenian, Europako Parlamentuan egon zan Jose Miguel Amostegui eibartarra, endometriosisaren inguruko komisiñuan parte hartzen. Lola Sanchez europarlamentarixak babestu eban topaketan endometriosisaren gaiñian lan egitten daben Espaiñiako hainbat alkartek egin eben bat eta, horrek batera, gaixotasun horretan adituak diran sendagilliak osatutako komisiñokuak be jardun eben. Adituen komisiñoko ordezkari modura egon zan Amostegui, Francisco Carmona Bartzelonako Hospital Clinic-eko ginekologixa buruarekin batera. Endometriosis gaitzak ugaltzeko adiñian duguaz andren %20 ingururi eragiten detse eta eguneroko bizitzan egitten diran jarduera asko egittia galarazten detse. Tratamenduekin miñak arintzen eta ugalkortasun ahalmena galdu ez deiken ahalegintzen dira.

## Lehiagune enpresa-foroa aurkeztu dabe

Sanjuanak baiño egun batzuk aurretik aurkeztu eben Lehiagune enpresa-foro barrixa Armerixa Eskolan. Azaldutakuaren arabera, Debabarreneko enpresarixoko batzuk gure eskualdian adierazle ekonomikuak izaten ari diran eboluziñua ikusitta, kezkatzen hasi ziran eta, egoerari bueltia emoteko asmuarekin, Debabarreneko indus-



tria suspertzeko erronka kolektibuari heldu detse, Lehiagune enpresa-foroa sortuta. Lehiagunek Eibar eta inguruko 49 enpresa industrial, 7.000 behargin baiño gehiagoko ordezkatzan ditte eta, industriatik kanpora be, instituziño eta alkartien babesa eta partehartzia daka.

## autuan



### ON EKIN LEHIAKETIA

Ekingunekuak seigarrenez ipiñi dabe martxan On Ekin Negozio Ideien Lehiaketia. Oinguan be bittan zatitu dabe lehiaketia: negozio ideiak eta proiektuak jasotzeko azken eguna da gaurkoa eta, honen atzetik, epaimahaikidiak sei finalista aukeratuko ditue. Ondoren, bozka bittartez aukeratuko dira irabazliak, eguenian Kerizpe alkartian egingo dan afarixan. Izena emoteko [ekingune@ekingune.com](mailto:ekingune@ekingune.com) helbidera idatzi edo 943 507 863 / 688 734 292 telefonuetara deitu bihar da eta martitzenerako 35 euro sartu biharko dira ES94 2100 1883 9502 0021 0124 kontuan.

**Funeraria-Ehorztetxe Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p> <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p> <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p> <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> <p><b>GRUPO Funeuskadi</b></p>	

## ISABEL PICAZO JIMENEZ

**ABUELA ISABEL:**  
 Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Zure jarrera eta bizitzeko gogoia beti gurekin egongo dira, "machota". Eskerrik asko eman diguzun guztiगतिक.



**ZURE FAMILIA GUZTIAREN PARTEZ**

**TUTULUMENDI**



## Eibar KE-k herrixan dakan eragin ekonomikua aztertu dau TactiZityk

TactiZity datu analisirako plataforma eibartarrak Eibar KE-k herrixan dakan eragin ekonomikua aztertu dau, Open Data Gipuzkoa, Eibarko Udala, Eibar KE eta Debegesaren datuen la-

guntasunarekin. Espaiñiako Ligako talde batek bere herrixaren ekonomixan zein turismuan zelan eragitten daben aztertu daben lehen aldixa da hauxe eta, datuak erakusten dabenez, talde armagiña Lehen Maillara igo zanetik herrixan daguazen diru-sarrerak gora egin dabe. TactiZityren analisixaren arabera, Eibar KEren erosketa-gastuak eta obrak 1,7 millioi eurotik 8,1 millioira pasau dira 2013/14 denboraldirik 2017/18 denboraldira. Eibar KEk ordaintzen dittuan zergak be hazi egin dira, 1,5 millioi eurotik 16,8 millioira, eta taldiarendako biharra egitten dabenen kopuruak be gora egin dau, 40 bihargin izatetik 94 izatera pasau dira eta. *“Datu horrek kuantifikatzia erreza da”, diño TactiZityren txostenak, “baiña inportantiagua da foballak hiriko beste jardueretan dakan eragin zuzena edo induzitutakua zelakua dan jakittia”.* Ikerketaren arabera, bidaia agentzien, ostalaritza-zerbitzuen eta garraio-zerbitzuen salmentak hazi egin dira; eta eragin ekonomikua, famia eta zergak albo batera lagata, 3,5 millioi eurokua da gitxi gorabehera.



## BriCor brikolaje dendia zabaldu dabe El Corte Ingleseko erdisotoan

El Corte Ingles taldiaren barruan dagan BriCor brikolaje katiak dendia barrixa zabaldu eban Eibarren Sanjuanen atarixan, Ego Gain kaleko merkataritza zentruaren erdisotoan. Eibarkua brikolaje katiak Euskal Herrixan zabaltzen daben bigarren dendia izan da, 2014az geroztik Bilbon martxan daganaren atzetik. Eibarko dendak 400 metro karratuko azalera dauka eta, beste tokixetan bezala, etxerako zein lorategixetarako 8.000tik gora produktu eskinduko dittu, sail ezberdiñetan (pintturia, erre-minttak, burdindegixa, elektrizidadia, iturgintza eta lorategixak) banatuta. Eibarren egin daben moduan, beste herri batzuetako El Corte Ingles zentruetan dendak zabaldua, BriCor katiak herri barruko bezerueri bere eskintza gerturatzia billatzen dabe.



## Primeran ospatu dittue San Pedro jaixak

Ixa atsedean hartzeko astirik hartu barik, Sanjuaneri lekukua hartu zetsen San Pedro jaixak. Urteroko martxan, Karmen kalian, Beheko Tokia jubilau etxe pareko parkian ospatu zittuen jaixak eta antolatutako jarduera gehixenak be han izan ziran. Ume zein nagusi, jairako goguarekin gerturatu ziran guztiak ederto gozatu eben festarekin. Ekitaldi diferentietan etaratako argazkixak etakitto.eus web orrixan, MEDiateka atalian bildu dittugu, nahi dabenak ikusteko moduan.



## Ortzadarraren koloreak nagusitu dira gurian LGBTI egunaren harira

Ekainak 28, LGBTI (Lesbianak, Gayak, Transexualak eta Transgeneroak, Bisexualak eta Intersexualak) eguna dala-eta, Untzaga plazan ortzadarraren koloreak dittuan banderia jaso eben, udal ordekarixen eta herriko hainbat taldetako kидien parte-hartzia izan eban ekitaldixan. Jarraixan, egunaren harira idatzi daben komunikatua irakorri eben eta Eibarko Gehitu alkartiak eta Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak alkarlanian antolatutako jardueren barri emon eben: barixaku illuntzian, Untzagan, pregoia irakorri eban Gaztea irratiko Dida saioko Jon Gutzonek eta, ondoren, zuzeneko musikia eskindu eban Paulantropia taldiak. Zapatuan, barriz, Las Fellini taldekuak eta Boloñesa Vegana Djak jardun eben eta, aurtengo programia agurtzeko, domeka goizian gurian oindiok be nahiko ezezaguna dan kirola, 'Jugger' izenekuaren inguruko erakustaldixa egin eben Untzagan.



## Zabalik segitzen dau Gure Balioak 2018 sarirako hautagaixak aurkezteko epiak

Debegesa garapen agentziaren ekimenez, pertsona edo entidade batek bere ibilbidian zihar Debabarreneko eskualdian sustatu dittuan balorieri airtortza egitteko emoten daben Gure Balioak sarirako hautagaixak aurkezteko epi uztailaren 15ian amaittuko da, baiña ordura arte onartuko dittue sariduna hautatzeko proposamenak. Debabarrenian bizi dan edozeineñek dauka hautagairen bat proposatzeko aukeria, baiña hautagaixak hainbat baldintza bete bihar dittuela kontuan hartzia komeni da: gure eskualdian jaixotakuak izan biharko dira edo, bestela, euren ibilbide profesionala hamen garatu dabenak. Eta, horrekin batera, giza balorietan oiñarritutako ibilbidia edo jardueria euki dabela erakutsi biharko dabe. Sarixaren gaiñeko informaziño guztia, baitta hautagaixak aurkezteko formularixua be, debegesa.eus helbidian topauko dittuzue. Bestela, 943 82 01 10 telefonora deittu edo balioak@debegesa.eus helbidera idatzi leike.



## Jabetzia bultzatzeko erdera klasiak emongo dira Andretxean irailian

Andretxeatik adierazi dabenez, irailian hasiko dittue "Empalabramiento", jabetzia bultzatzera bideratuta daguazen erdera klasiak emoten. Izena emoteko epi aste honetan zabaldu dabe eta interesa dakanak uztailaren 26ra arte izango dau apuntatzeko aukeria, Andretxean. Jardueria emakumiendako da eta klasiak duan izango dira. Lehen saiua irailaren 11n (martitzena) izango da, goizeko 10:00etatik 12:00xetara, Andretxean. Informaziño gehixago nahi dabenak andretxea@eibar.eus helbidera idatzi edo 943 70 08 28 telefonora deittu izango dau argibide gehixago jasotzeko aukeria.

## MIKEL BOLLAIN MUNIOZGUREN

2018ko ekainaren 12an hil zen



Bere familiak ESKERRAK eman nahi ditu une samingarri hauetan jasotako maitasun eta laguntzarengatik

**BOLLAIN URBIETA FAMILIA**



Xabier Oruesagasti Ustekabe fanfarreko saxofoi-jole eta presidenteak Madrilgo Teatro Real antzokian jo zuen joan den zapatuan hango Orkestra Sinfonikoarekin (Estatuko orkestra finko zaharrena). Angela Gheorghiu sopranoarekin eta Teodor Ilincai tenorrarekin Shostakovichen 2. balsa jo zuen saxofoi klasikoan goi-mailako ikasketak egiten diharduen eibartarrak, eta oso pozik geratu zen eskainitako kontzertuarekin.



*Oruesagasti eibartarra lehen planoan.*

## **XABIER ORUESAGASTI** (saxofoi-jolea):

# “Ustekaberekin ikasi ditudan kontzeptu eta teknikak oso baliagarriak izan dira”

**- Zer moduz joan zen Madrilgo egonaldia?**

Bikain! Hiru entsegu egin genituen kontzertua eskaini aurretik, baina horrela izan ohi dira gauza hauek, oso profesionalak. Lehenengo entseguan dena primeran egiteko gai izan behar zara. Gero, kontzertua oso polita izan zen eta gure pieza oso ondo irten zen.

**- Pieza bakarra jo zenuen?**

Bai, normalean orkestreran saxofoiak ez dira modu finkoan egoten, saxofoia berandu asmatu zelako eta orkestreraren errepertorio zentrala osatzen duten piezak aurreragokoak dirrelako. Hala ere, errepertorioak berritzen ari dira eta saxofoia gehiago entzuten da.

**- Madrilgo Teatro Real antzokian jotzeak errespetua ematen du?**

Antzoki ikusgarria da eta beteta zegoen. Gainera, sarrerak oso garestiak ziren eta orkes-

traren maila demasekoa da. Oso talde profesionala da. Nire lehen aldia zen eurekin, aukera aparta, eta gauzak ezin hobe egin behar nituen itxura ona emateko.

**- Eta Angela Gheorghiu eta Teodor Ilincai abeslariekin jotzea, zer moduz?**

Izugarritzko artistak dira. Kontzertua amaitzean guregana etorri ziren zoriontzera.

**- Nola sortu zitzaizun han jotzeko aukera?**

Madrilgo Orkestra Sinfonikoan, normalean, bi saxofoi-jole finko daude eta euretako bat nire irakaslea da Musikenen. Beste saxofoi-jole bat behar zuten eta nigan jarri zuten konfiantza. Asko eskertu behar diet biei, horrelako emandaldi baterako aukeratu izana izugarria delako niretzat.

**- Gauza puntuala izan da edo eurekin gehiagotan jotzeko aukera izango duzu?**

Ez dakit. Ondo irten zen, nire kontaktua daukate, baina ez dakit berriz deituko dituten edo ez. Gaztea naiz oraindik eta ikasten nabil, baina prest nago.

**- 22 urte dituzu, baina ia bizitza osoa daramazu musikaren munduan. Nola hasi zinen?**

6-7 urterekin Musika Eskolan hasi nintzen. Nire aitaitxa Gabriel Musika Eskolako atezaina zen, musika asko maite zuen, eta anaia eta biori musikarekiko maitasuna kutsatu zigen. Musika Eskolan eta Ustekabe fanfarrean gazte hasi nintzen, baina unibertsitate ikasketak beste bide batetik hasi nituen. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen eta, aldi berean, Donostiako kontserbatorioan. Unibertsitatean ez negoen eroso eta kontserbatorioan, aldiz, pozik nabilen. Beraz, musikan buru-belarri jartzea era-

baki nuen eta urtebete geroago Musikenen sartu nintzen. Karrera amaitzeko urtebete falta zait eta oso gustora nabil. Gainera, emaitza onak ikustea zirraragarria da, hartutako erabakia berresten dute.

**- Bide honetan nolako garrantzia izan du Ustekabek?**

11 urte nituenean hasi nintzen eta topera nabil ordutik. 15 urterekin arduradun izendatu ninduten eta asko ikasi dut. Kontserbatorioan ikasten dudanaren ezberdina da, kaleko musika, eta kalean ikasten ditudan kontzeptu eta teknikak oso baliagarriak dira.

**- Udako agenda bete-beteta dator Ustekaberentzat?**

Bai! Taldeak oso osasun ona dauka. Lagun talde bat gara eta martxa betean gabiltza. Belaunaldi berriak sartu ziren, etorkizuna duen fanfarrea da eta plazerra da eurekin hara eta hona ibiltzea.



# Baserritar jantzia duen tangertarra

**E**txea euskarazko oharrez beteta dauka Houda El Khayatik. Komunean, *“aurpegia garbitu”*; egongelan, *“jaso jostailuak”*; sukaldean, *“edan”* edo *“jan”*; eta abar. *“Semeei euskeraz egin nahi diet eta horrela gehiago ikasten dut”*. Ongi Etorri Berbalagun programako kidea da eta euskal kulturaren murgiltzeko ahalegin guztiak egiten ditu. Tangerren (Maroko) bizi zenean ez zuen Europara etortzea ere pentsatzen, baina familia osatu du Eibarren.

## Lehenago eta gaur egungo Tanger

Tangerren jaio zen Houda El Khayati. Tanger txiki batean, bizi-lagunak ezagutzen zituen Tangerrean. *“Orain hori ez da existitzen”*. Bere jaioterriak beti izan du izaera internazionala, baina izugarri hazi da azken urteotan. *“Zoramena da orain!”*. Iazko udan Tangerrera joan zenean arraro sentitu zen, *“harrituta”*. Ez zaio gustatzen Tangerrek hartu duen itxura eta azken urteotako hazkunde grinatua. *“Gainera, bizimodua asko garestitu da eta hainbat balio galdu dira; jendea oso materialista da orain”*.

## Gurasoen lana jarraibide

Gurasoekin eta beste lau anai-arrebekin bizi izan zen Houda bere Tanger kuttunean. *“Pozik bizi ginen”*. Bere ama etxeakoandrea zen eta aita irakaslea. *“Ez ginen aberatsak, nire aitak irabazten zuen diruarekin aurrera egiten zuen familia osoak, baina ez zitzaigun ezer falta izan”*. Lursail txiki bat erosteko aukera izan zuten eta poliki-poliki etxea eraikitzen joan ziren. *“Gurasoek lan handia egin zuten guri ahalik eta bizitza onena eskaintzeko. Eredua izan dira guretzat”*.

## Mundua ezagutzeko gosea

Ekonomian lizentziatua da Houda. *“Sarri-kon pare bat ikasgai egin behar izan nituen nire titulua homologatzeko eta, bitartean, graduondoa ikasi nuen Bartzelonan”*. Orain, bere seme gazteena eskolan hasteko zain dago masterra egiten hasteko. Gestoria batean egin zuen lan sei urtez Marokon, eta nazioarteko garraio enpresa bateko finantza arduraduna izan zen. *“Ez zitzaidan lanik edo dirurik falta, baina gauza berriak ezagutu nahi nituen eta Kataluniara joan nintzen, anai bat han bizi zelako”*. Bere asmoetan ez zegoen Europara etortzea, baina bere bizitza monotonoari bizigarria eman nahi zion. *“Oso lan ona utzi nuen Marokon eta McDonalds batean hasi nintzen lanean Katalunian”*.



Euskal baserritar jantzia ere badu Houdak. **Ekhi Belar**

## Euskal kulturaren murgilduta

Beste herrialde batzuetako jendearekin harremana izan zuen Houdak bere lanari esker eta horrek asko lagundu zion Europako bizimodura egokitzeko orduan. *“Hala ere, buruko zapiarengatik eta janzeragatik erretxazoa sentitu izan dut pixka bat, baita etxea aurkitzeko orduan ere. Gero, ezagutzen nautenean ez dago arazorik”*. Lanetik etxera, gero ikastera eta familiarekin ondoren, Houdak ez zuen denbora askorik izan Kataluniako kultura ezagutzeko. *“Euskal Herriko kultura, ordea, asko sentitu izan dut eta barrutik bizi dut. Baserritar jantzia ere badaukat!”*.

طرش تي ام فيضلا  
طرفي ام رادلا لوم و

“Dayf ma yetsharret  
w mol dar ma yfarret”

“Gonbidatua ez da zorrotza  
eta astuna izan behar, eta  
anfritioiak ahal duena egin  
behar du gonbidatua asetzeko”

## Semeen eredu

Gurasoek Houda eta anai-arrebekin egin bezala, Houdak ere eredu izan nahi du bere hiru semeentzat (Rayan, Ilyas eta Adam). *“Eurak euskaldunak sentitzen dira eta nik euskal kulturaren alde egiten dut eredu izateko. Ni naiz gakoa”*. Senarrarekin arabieraz egiten du Houdak, baina semeekin euskaraz egin nahi du eta buru-belarri dabil bere nahia betetzeko. *“Umeen eskolan, Arrateko Andra Marin, euskarazko klaseak ematen dizkigute gurasoei. Aurrean jarri zaizkigun oztopoak gainditzeko laguntza handia eskaini digu eskolak eta, ondorioz, eskolako gurasoen arteko elkarbizitza zoragarria da”*.



**PEDRO ARRIOLA:** Etxe zahar baten atzean etxe berria etorriko da.

# Udalak aho batez onartu du preso en urruntze politikaren aurkako mozioa

Aurreko astean, udaletxeko pleno aretoan egindako prentsaurrekoan, Sare kolektiboak preso en urruntze politikaren aurka aurkeztutako mozioa Eibarko Udala Bozeramaileen Batzardeak aho batez onartu duela eman zuen ezagutzera eta, jarraian, horren inguruko azalpenak eman zituzten Elena del Puerto eta Ixidro Gabirondo Sarekideek: "Eibarko Udala, Espetxeen Lege Orokorrean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean, deserrotzea saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarerazte printzipioen arabera, adierazten du ez dagoela ados urruntze espetxe-politikarekin. Alde horretatik, ETAre indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste du espetxe-politika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorra gizarte eta familia erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat, zeinak erraztuko baitu Ibon Muñoa Arizmendiarieta preso eibartarrak bere senide eta inguru sozialarekin behar duen harremana".

Sarek aurkeztutako mozioa onartu izanarekin pozik daudela adierazi zuten: "Hasteko, esan PSE-EE, EAJ- PNV, EH Bildu eta Irabazik osatzen duten Eibarko Udaleko Bozeramaile Batzardeak Eibarko Sarek aurkeztutako mozioa onartu izana benetan pozgarria iruditzen zaigula eta, horrekin batera, txalogarria preso en urruntzearen aurka eta espetxe politika berri baten alde erakutsi duten jarrera. Guretzat hau oso garrantzitsua da, Udaletxeak dirilako herritarrentzat instituziorik gertukoena eta elkarbizitzarako eta bakerako gizarte en espetxe politika hau aldatzearen alde dagoen kontsentsua instituzioetan irudikatzea behar beharrezkoa dela uste dugu. Bestalde, esan behar dugu Eibarren, Udaletik kanpo gure mozioak beste talde batzuen babesa ere jaso duela, hala nola alderdi politikoen artean Podemos-Ahal Dugu alderdiarena, CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuena, EGI eta Ernai gazte erakundeena eta Nalua Eibarko Talde Feministarena. Azken hauek, gainera, mozioa babesteaz gain, emakume presoekiko euren kezka azaldu nahi izan dute, emakumeak izateagatik are bakartuagoak, are isolatuagoak daudelako".



Eibarko Udala Bozeramaileen Batzardeak aho batez onartu zuen Sarek aurkeztutako mozioa.

## Baita beste bi proposamen ere

Horrekin batera, espetxe politikak eraginda gertatu diren istripuak gogora ekartzeko aprobeztatu zuten agerraldia: "16 hildakoetako bat eibartarra zen: Iñaki Saez, Amañakoa. Asier Heriz plaentxiarrarekin batera, horren famatua egin den Brievako kartzelara bisitan zihoala, Avilako bide bazter batean, 39 urterekin bizia galdu zuen.

2001eko Arrate eguna zen. Iñakiren emaztea ere oso larriki zauritu zen istripu horretan, zorionez onik atera bazen ere. Berekada bat bere senide eta lagunei".

Onartu duten mozioetik kanpora, beste bi eskaera egin dizkiete Udala talde guztiei: "Alde batetik Cordobako espetxera Eibarko Udala Ordezkaritza bat bidaltzea, bai espetxeko zuzendariarekin eta bai Ibon Muñoa berarekin bildu eta bere egoeraz mintzatzeko. Guretzat oso garrantzitsua da Espetxe Zuzendaritza Orokorra ohartaraztea Ibon presoaren eta espetxe politikaren inguruan Eibarren badagoela kezka bat,



eta proposatzen duguna hori adierazteko modu oso egokia iruditzen zaigu.

Eta bigarren proposamena Eibarren elkarbizikidetzaz lantzearen ingurukoa da. Herri batzuetan ari dira esperientziak egiten, presoak, biktimak eta hain zailak eta mingarriak egiten zaizkigun beste gai batzuk pixkanaka jorratzen joateko, oso desberdin sentitzen garenek elkarrekin eseri eta lasai hitz egiteko, eta batez ere elkarri entzuteko. Horretarako foro bat, mahai bat edo dena delako bat behar beharrezkoa ikusten dugu eta hori martxan jartzea eskatzen dugu Udalari".

Aitor Buendiak bere bi pasioak batzen ditu 'La Ruta Slow' irratsaioan: kazetaritza eta gastronomia. Bere gurasoek Bidebarrieta kalean dagoen Ibaiondo taberna zuten eta taberna giroan hezi zen kazetari eibartarra. Orain, Kazetaritza Lan Onenaren Euskadiko Gastronomia Saria jaso du bertako ekoizle txikiei, sasoian sasoiko produktuei eta elikadura osasuntsuari gorazarre egiten dion irratsaioarengatik. Bidebarrietako Baratze tabernan jarri digu hitzordua, gurasoen Ibaiondo tabernara begira.

## AITOR BUENDIA

(kazetaria):

# "Gastronomiaren inguruko hainbat telebista saioaren antitesia da *La Ruta Slow*"

*- Taberna giroan hazi zara, kazetaria zara bokazioz eta Kazetaritza Lan Onenaren Euskadiko Gastronomia Saria jaso berri du zuk zuzentzen duzun irratsaioak. Nola digeritzen da horrelako sari bat?*

Lehenik eta behin harriduraz, ez nuelako espero. Gainera, ez dakit jaso dudan heziketarengatik den edo zer, baina pentsatu dut egongo dela beste jende bat gure antzeko lerroan lan egiten dabilena eta saria merezi duena. Orduan, emaztea etorri zitzaidan eta zera esan zidan: "Aitor, zuk urte asko daramatazu honetan, 50 urte beteko dituzu eta ibilbide luzea egin duzu". Eta bai, arrazoa dauka eta egindakoa aitortzen hastea ez dago txarto. Pertsona batzuei asko kostatzen zaigu hitz gozoak eta laudorioak onartzea, eta tira, kasu honetan gogo onez hartu dut esker ona. Ekoizle txikien, eta berta-

ko eta sasoian sasoiko produktuen defentsa egiten dugu irratsaioan, eta zentzu horretan gauzak ondo egiten ari garela berresten du sariak. Gastronomiaren inguruko hainbat telebista saioaren antitesia da 'La Ruta Slow' eta gastronomiaren inguruan beste modu bateko saioak egin daitezkeela erakusten dugu. Herritarrei beste ikuspuntu bat eta oinarritzko gauza batzuk gogoan hartzeko aukera eskaintzen diegu. Adibidez, merkatu plazara (Eibarko kasuan, ikusiko dugu noiz) eta auzoetako denda txiketara erostera bueltatzea, edo ekoizle txikiak zaintzea (eurek mantentzen dutelako Arrate dagoen moduan edo eurek egiten dutelako posible gure mendiek daukaten itxura edukitzea).

*- Beraz, ez da bakarrik irratsaioari egiten zaion esker ona, baizik eta berak adierazten duenari, ezta?*



Hori da! 'La Ruta Slow' irratsaioak, izenak berak esaten duen bezala, 'Slow Food' mugimenduaren ibilbidea markatzen du eta filosofia horrekin zerikusia duten establezimendu, jatetxe eta ekoizleen inguruan mintzatzen gara.

*- Programa ere 'slow' hasi zen, poliki-poliki bere bide eginez, baina gora beti. Radio Vitorian hasi eta Radio Euskadira pasa zen, orain sari hau...*

Kazetari moduan kirol eta politika munduan ibili izan naiz, eta 2012an hasi nintzen 'La Ruta Slow' saioarekin. Bost urte bakarrik izan dira, baina bi-

kaina da urte hauetako lanari esker horrelako saria jasotzea. Bide honek hasiera bat dauka eta Ibaiondo tabernak garrantzia handia dauka zentzu horretan. Oso argi neukan kazetaria izan nahi nuela, barruan neraman zerbait zelako, baina Mariluz Perez nire amak egiten zituen papata-tortillen usain artean, Antonio Buendia nire aitak prestatzen zituen ozipin-olioko antxoillen inguruan eta ostalaritza-giroan hazi gara Amaia nire arreba eta biok. Kafe osoak, bokatak, menuak eta plater konbinatuak egiten ziren Eibar horretan hazi naiz. Gertuko zerbitzu ona eskaintzen

duen ostalaritza, eta tabernari eta bezeroen artean sortzen den harremana gustatzen zait. Hori berreskuratu behar dugu, makinaren moduan gabiltzalako azken aldian. Askotan ez dugu agurtu ere egiten!

**- Saioak "bost urte bakarrik" daramatzala diozu, baina gaur egungo gizarteak daukan abiadura kontuan izanda bost urte irautea ez da gutxi. Gure bizimoduaren abiadura moteldu beharko genuke?**

Baserritar zahar batek segueruenik ez daki zer den 'slow' mugimendua eta logikoa da, baina izena edo marka ez da garrantzitsuena, horren atzean dagoena baizik. Debemenek hitzaldi bat eskaini zuen iaz Untzagako Jubilatutxo Etxean 'Baserrikoa' programaren berri

handirik Eibarren, merkatu plaza eta denda txiki batzuk besterik ez. Azken aldian marka ugari ailegatu dira gurera, horietako batzuk Levanteko zonetatik, eta jendeak erosketa masiboak egiten dituzte horietan. Adi ibili behar gara horrekin, establezimendu txikietan erostea ahaztuko zaigulako, eta gure programan denda txiki horien defentsa egiten dugu, zaindu egin behar ditugulako. Ez gara gizaki perfektuak eta inkoherentziak ditugu, eta ez da ezer pasatzen ez baduzu urteko 365 egunetan zure erosketak denda txikietan egiten, baina ahal den neurrian zaindu egin beharko litzateke, eta ez hitzekin bakarrik. Horrela, daukagun elikadura burujabetza urria mantenduko dugu.



*Irratigintzan lan asko egin du Aitorrek, batez ere politika eta kirolean.*

eurentzat onena izan zitekeena, hau da, gure inguruko nekazaritza. Maialen eta Mikel seme-alabekin etxetik kanpo jaten dugunean guk irensten duguna jaten dute (barazkiak, haragia, arraina, lekaleak edo postreak, berdin dio) eta ez umeentzat bereziki prestatutako jakiak. Beraz, Isabel, Maialen eta Mikelek berebiziko garrantzia daukate eurekin hasi eta 'La Ruta Slow' irratsaioarekin jarraitu dudana bidean.

**- Nola hasi zen 'Slow Food' mugimendu hori?**

80. hamarkadan hasi zen Italian eta Carlo Petrini kazetariak sortu zuen. Turin inguruan janari lasterreko establezimendu asko zabaltzen hasi zirela ikusi zuen, eta jendeak trattoria eta betiko establezimenduak albo batera utzi zituen. Trattoria asko itxi egin behar izan zituzten, familia askoren ekonomia pitutara joan zen eta, horrekin batera, betiko errezetak. Gizartearen homogeneizatzen ari zela konturatu zen, eta janari lasterrenaren aurrean janari motela al-

**"Slow Food ez da janari lasterraren aurkako mugimendua, baizik eta ekoizle txikiak eta tokian tokiko establezimenduak babesteko ekimena"**

darrikatu zuen, hau da, 'Slow Food'. Ez da janari lasterraren aurkako mugimendua, baizik eta ekoizle txikiak eta tokian tokiko establezimenduak babesteko ekimena.

**- Euskal Herrian ere betiko sukaldaritza edo elikadura ohiturak galtzeko arriskua daukagu?**

Oso baikorra naiz berez, baina jendea Gobernuaren edo diru-laguntzen zain badago, jai daukagu. Maila orokorrean lurrik ezin du jasan hazkunde erritmo hau eta norbanakoek zeresana daukagu hor.




*Buendia Kazetaritza Lan Onenaren Euskadiko Gastronomia Sariarekin.*

emateko, eta gure inguruan ditugun ekoizleen berri eman zen. Hor ikusi zen denetarikozko produktuak eskuratu ditzakegula inguruko ekoizleen bitartez, orain dela urte batzuk arte egin den bezala. Lehen ez geneukan merkataritza-gune

**- Nola murgildu zinen 'Slow Food' mugimenduan?**

Nire emaztea Isabel eta ni neu guraso izan ginenean gure seme-alabei onena ematen saiatu ginen. Ikusi genuen ez zela ezer arraroa bilatu behar, gure inguruan geneukalako



**JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAREN**  
**7. URTEURRENA (2011-VII-4)**

**"Zazpi urte pasa badira ere, gure bihotzetan jarraitzen duzu"**

**ZURE FAMILIA**



**Lara Salguero** (Eibarko Institutuko logotipo berriaren egilea)

## “Logotipoan hezkidetzaren koloreak erabili ditut”

Datorren ikasturtetik aurrera, Eibarko ikastetxe publikoen fusioaren ondorioz sortutako institutuak izen berria, Eibar BHI, eta beste irudi korporatibo bat izango ditu. Institutu berriaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu zuten Itzio BHI, Mogel Isasi eta Ignazio Zuloaga Institutuko ikasleen artean, eta Itzio BHI-ko Lara Salguerok aurkeztutakoa aukeratu dute. Larak 16 urte ditu eta DBHko 4. mailako ikasketak egin ditu aurten.

– **Nola animatu zinen lehiaketan parte hartzera?**

Niretzat esperientzia guztiz berria izan da. Plastikako ikasgaien irakasleak logotipoa egitea proposatu zigun. Bakoitzak berea egin zuen eta astebete inguru eman genuen gai hau lantzen. Hasieran beste gauza bat egin nuen, baina ez nintzen gustora gelditu, gehiegi kargatuta gelditzen zela iruditu zitzaidan. Azken momentuan zerbait desberdina egitea pentsatu nuen eta hau irten zitzaidan, sinpleagoa, baina, aldi berean, indartsuagoa eta zuzenagoa.

– **Pozik gelditu zinen, beraz, emaitzarekin.**



Bai, oso gustora eta are gehiago lehiaketa irabazi nuela jakin nuenean. Nire ikaskideak ere asko poztu ziren, gure ikastetxeko norbaitek irabaztea denontzako oso pozgarria izan zen, baita irakasleentzako ere. Koadro bat oparitu zidaten logotipoarekin eta bertso batekin eta oso hunkigarria izan zen.

– **Diseinu edo marrazketa lanetan ibilitakoa zara?**

Ez, baina tipografia mota desberdinekin esperimentatzea asko gustatzen zait. Logotiporako letra moderno bat aukeratu dut. Eta triangeluekin ikastetxe desberdinen bateratzea adierazi nahi izan dut, hezkidetzako koloreak erabiltuta.

– **Nolako izan da logotipoa aukeratzeko prozesua?**

Lehiaketan Institutu publiko-etako ikasleek hartu dugu parte. Finalista moduan 4 aukeratu ziren, eta hezkuntza komunitate osoak hartu du parte erabakian: gurasoak, ikasleak eta irakasleak. Gutun bat bidali zen etxeetara 4 logotipoen artean aukeratu ahal izateko.

– **DBH amaitu duzu aurten eta hurrengo ikasturtean Baxilergoarekin hasiko zara. Nola joan zaizu ikasturtea?**

Oso ondo! DBHko 3. eta 4. mailak Itzioon egin ditut, eta oso pozik egon naiz nire ikaskideekin. Primeran pasatu dut, eta Itzioko irakasleak ere zoragarriak izan dira. Oso irakasle onak daudela esan beharra daukat.



## JOSE MAIDAGAN LOPEZ

4. urteurrena: 2014-VII-3

“Badira lau urte joan zinela, baina gurekin jarraitzen duzu egunero”

ETXEKOEK MAITE ZAITUGU



## Talentu berrientzat vending lehiaketa abiatu du Urkotronik-ek

Eibarko Urkotronik "vending" makinaren enpresak aurtun 35 urte bete ditu eta, horren aitzakiarekin, 'Urkotronik Vending Lehiaketa' abiatu dute. Osasunarekin eta jasagarritasunarekin lotura duen ekimena Euskadiko Lanbide Heziketako zentroekin lankidetzan antolatu dute, "ekintzailtza babestu, enplegu modu berriak sustatu eta Euskadiko ikasleen talentu sortzailea" saritzeko asmoz. Izan ere, alde batetik herritar guztiei zuzendutako lehiaketa dago eta, bestetik, Lanbide Heziketako ikasleei zuzenean bideratutako sariketa zehatza.

Jaietako zapiak, txankletak, aterkiak, ogia, loreak... vending makinei lotutako aukerak oso zabalak eta anitzak dira eta, horregatik, Lanbide Heziketako ikasle gazteen buruak lanean ipini nahi dituzte antolatzaileek, salmenta automatikorako makinentzat baliagarriak izan daitezkeen ideia eta proposamen berritzaileak bilitzeko esperantzarekin. **"Jarri martxan irudimena eta irabazi vending makina bat"** esal-



diarekin bota diete desafioa gazteei: "Zer konponbide bururatzen zaizu inguru osasungarriagoak sortzen dituzten

makina jasagarriagoak lortzeko? Pentsatu oraindik sortu ez den erabilera batean, harritu gaitzazu zure proposamenare-

**Proiektu onenak 1.000 euroko saria jasoko du eta irabazleari Urkotronik-en praktikak egiteko aukera emango diote**

kin, eta zure ideia hori egi bihurtzeko gure aholkularitza-zerbitzua eta makina lortu". Izan ere, Urkotronik-ek ipiniko ditu makina eta aholkularitza.

**1.000 euro eta makina irabazlearentzat**

Vending hobea nola irudikatzen duten aurkeztera ausartzen diren ikasleentzat sari potoloa emango dute: proiektu onenak 1.000 euroko saria jasoko du eta, horrez gain, irabazleari Urkotronik-en praktikak egiteko aukera emango diote. Proposamenak aurkezteko epea uztailearen 31ra arte egongo da zabalik. Lehiaketari buruzko argibide guztiak urkotronik.com/lehiaketa helbidean kontsultatu daitezke.

DENBORALDI AMAIERAKO

# OUTLET

T. ETXEBARRIA  
10 zenbakian

UZTAILAREN  
13ra arte


[EIBARSTORE.COM](http://EIBARSTORE.COM)

Ondo gogoan dauka Josean Alberdi "Gomak" Amañako jaietako batzordean sartu zen sasoi. Sabino eta Emilio de los Toyos zeuden orduan eta Mikel Rodriguez, Barrutia, Kike eta Juanjo "El cura"-rekin sartu zen Goma orain dela 40 urte. Gaur egun berak bakarrik jarraitzen du, Andradetarrak, Hilario eta Jelok hainbat urtetan lagundu eta gero. Gaur egun urteko 365 egunak eskaintzen dizkio Amañako jaiak antolatzeari, rifak saltzeari laga barik. Behin jaietan sartuta, orduan bai, izaten du zeinek lagundu jaietako txosnan eta bestelako ekitaldietan. Beti ere, bere ardurapean. 1979ko 380.000 pezetako aurrekontutik aurtengo 74.000 eurokora (12 milioi pezetatik gora) ez da nolana hikoia eman den jauzia. Eibartarrondako ez dago sekreturik: Goma bera da herriko auzo jendetsuenetako jaien bihotza eta arima.

# Bizitzaren bi herenak Amañako jaien alde

Aurreko barixakuan egin zuen Jose Antonio Alberdik, urtero bezala, jaietako aurkezpena Amañako Laboral Kutxako instalazioetan, auzotar eta ez auzotar asko bertan zirela. Sasoi honek taktiko beroa lagun, aurtengo egitarauari errepassoa egin zion jaietako erantzule nagusiak; eta tartea aprobetxatu zuen, beste hainbat gauzen artean, Txus Alzaga Urki Foball Taldearen presidentea eta Fernando Fernandez Madrildik etorritako eta gaur egun eibartartu den eskubaloiko gizona omentzeko.

Hurrengo egunean, aurreko zapatuan, eguraldiak ez zuen bere aurpegi onena eskaini. Hala ere, "Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek bere onena eman zuten, euriari aurre egin eta ekitaldiari eutsiz. Jendeak ere bikain jokatu zuen, asko igo ziren-eta. Hori bai, gauerako jende gutxiago geratu zen, baina 23:00ak arte izan zen girorik", dinosku Jose Antoniok.



Baroja Collet artistak 40 urteak omentzen dituen grabatua egin du.



Gomak jaietako ekitaldiak prestatzeko batzordeko beste kideen laguntza izaten du.

Aurtengo jaietako aurrekontua 74.000 eurotik gertu izango da, "40. urteurren honen hainbeste merezi zuelako". Dena dela, irailerako ere badu beste asmorik Gomak: "Azken asteburuan zeozer berezia prestatuko dugu Untzagan, eibartar guztiei Amañarekin izan duten jarrera eskertzeko. Amañako jaiak ez dira auzoarenak bakarrik, eibartar guztiak izaten ditugu hemen, eskualdeko jendea ez esatearren. Irailen Nico Etxart ekartzeko asmoa dut eta izango da kartela osatzen lagunduko dionik. Eguerdian hainbat pintxo prestatuko ditugu, gero herri-bazkaria izango da eta hor mundu guztiak izena ematea espero dut. Arratsaldean pailazoak ere izango dira. Ekitaldiak izango dira egun osoan". Jakina, orain arteko ibilbideari jarraituz, ez du baztertzeko egun horretarako ere "eskuz egindako rifa-sorpresa ateratzea. Eibartarrek hori eta gehiago merezi dutelako".

Goma eskertuago dagoelako Eibarri Amañari berari baino. "Eibarren orokorrean auzoan baino laguntza gehiago nabaritu dudalako. Amañan bertan adinean aurrera doazenen laguntasuna estimatzen dut gehiago, asko dira-eta gerturatu eta rifak erosten dizkidatenak. Hurrengo belaunaldiko jendeak, oster, paso egiten du askotan. Jaien alde daude, nola ez, baina ez dute ordaintzerik nahi. Hori ezin da izan soluziorik onena". Hori horrela, bera joaten denerako zelako etorkizuna ikusten dien jaiak galdetuta, ez daki zer erantzun, maila berean jardutea ezinezkoa dela jakin arren.

## Beste pare bat urte jarraitzeko gogoz

Hamar urte geratzen zaizkio Amañako jaiak antolatzen urrezko ezteiak ospatzeko, baina bere burua ez du hor ikusten Gomak: "Pare bat urtetan jarraituko dut, eta martxa zeozer jaitsiz gainera. Aurten lan



asko egin behar izan dut eta ez nago horrelako martxan ibiltzeko moduan. Gainera, inor ez da ezinbestekoa... Baina badut borrokatzen jarraitzeko asmoa”.

Aurten indar handiko bi kontzertu prestatu ditu, gaur bat eta bihar bestea. Taldeak ere ez dira nolana hikoak, gaur egun pillean daudenekin hainbat urtetako curriculumak dutenak datozelako. Horiek lotzeak eman dio lan gehien: “Kontratuak ez dira errazak adosten, gauza asko eskatzen dizute, kamerinoak... Doctor Deseo, esaterako, aurretik ere izan zen Amañan, baina oraingoan eskakizun gehiagorekin etorri dira. Willis Drummond-ekoek, oster, gizon jokatu dute”. Jakina, horrelako arloetan hainbat aldaketa eman dira, hoberako gehienetan: “Hasieran eszenategia guk geuk muntatzen genuen, egurrezkoak ziren, iltzekin, eta izan zen behera etorri zen talderik ere”, gogoratzen du Gomak.

Espazioan ere zeozer hobetu da egoera, horretarako batzuetan obrak sufritzea egokitu bazaie ere: “Lan asko egin dira Amañan, hainbat azpiegitura hobetzeko, eta horrek auzoa hankaz gora egotea ekarri du askotan. Gerokoak merezi izan du, baina tartean halamoduz konpondu behar izan gara”. Dena dela, Goma pozik dago Udalak eskaini izan dion laguntzarekin: “Beti kolaboratu izan dute eta hori eskertzekoa da, kontuan izan dute gure ahalegina”.



# GAUR BIHAR

Deus Ez La Guardia  
 Doctor Deseo La Frontera  
 Willis Drummond Canal 69

## SGAErekin zorretan oraindik

Urtean zenbat rifa saltzen dituen ez daki ziur. “Izango dira 30.000 bat” esaten digu. Baina aurtengo jaiak amaitu bezain laster hasiko da 2019ko jaietarakoak saltzen, tartean asterokoak izan, hilabetekoak edo bereziak, horietakoak ere izaten direlako urtean zehar, hiruzpalau. “Eskerrak eibartarrek ondo erantzuten dutela. Amañan ez pentsa, ez dakit 5.000 euro aterako dudan urtean. Espero dut horrelako ahalegina egin

ondoren, antolatutako kontzertuekin-eta, tabernarietako eskuzabalagoak izatea diru hori auzoan geratzen delako”.

SGAE (Sociedad General de Autores y Editores) elkartearekin azken urteotan izan duen arazoa ez da oraindik amaitu Alberdientzat. “12.000 euroko ordainketa egin dugu eta beste 18.000 inguru zor dugu oraindik. Zeozer antolatu beharko dugu oporrak pasa eta gero horri aurre egiteko. Hori bai dela benetako mafia, baina mundua horrela dago antolatuta. SGAE-ko batzuk kartzelan diruarekin jokatu duten moduarengatik eta gu moduko batzuk ordaintzera zigortuta, epaiketan gainera ezer esateko aukerarik izan barik. Inork ez lioke ezer ordaindu behar horrelako talde bati”.

Aurtengo jaietan izan da berritasunik eta baita hainbat aldaketa ere. Tartean dugu helduen danborradan izango den ordu-aldaketa, gauetik arratsaldera pasatu delako. Herri-kirolak berreskuratu dira eta, janari kontuetan beti luze eta zabal jokatu badute ere Amañako jaiak, oraingoan beste urrats bat egin du eta bi herri-bazkari eta herri-afari bat izango dira. Ezin da ahaztu urteroko jubilatuekiko bazkaria: “Dagoeneko 170 lagunek eman dute izena”. Goma ilusionatuta dago baita Eibar Rugby Taldekoek antolatu duten ekitaldiarekin ere, “gazteenei kirol horretara gerturatzeko aukera polita eskainiko dielako”. **Jaietako egitarau osoa 28. orrialdean aurkitu dezakezue.**

Eta Gomak bereziki eskerrak eman nahi dizkio Juan Luis Baroja Collet artistari 40. urteurrenerako amañatarrak prestatutako grabatuarengatik. Grabatu berezi hori eta beste lan asko ikus daitezke farmaziaren gainean Barojak zabalduetako lokalean.




Jaiak aurkezpen ekitaldian Gomak hainbat lagun omendu eta gogoratu zituen.



*olatz etxeberrria*

-ARKITEKTOA-

# arkitektura



## ITE-a. Eta orain zer???

### ITEa aurkezteko epea amaituta, zer gertatuko da orain?

AZKEN ALDI HONETAN ASKO HITZ EGINDA ITE-ARI BURUZ. Aurreko astean, ekainaren 27an (ez dago argi, Udalaren arabera) ITE-a egiteko epea amaitu zen 2017ko abenduaren 31n 50 urte baino gehiago betetzen zuten eraikinentzat.

Euskal Autonomia Erkidego osoan 73.000 etxebizitzek zuten eginkizun hori, baina beteko ote zuten? Urte hasieran %17k baino ez zuten bete eta zaila da pentsatzea sei hilabeteko epean beste guztiek ITE-a aurkeztu izana. Agian posible izan daiteke hilabete gutxitan beste %73k ITE-a egitea eta euren udaletxeetan aurkeztea. Ezetz sinetsi?? Ezta nik ere...

Argi eduki behar dugun lehendabiziko ideia ondorengoa da: eraikinen jabeek jakin behar dutela zein den eraikinaren adina, eta 50 urte egiten duenean eraikin horrek beste urtebeteko epea edukiko duela ITE-a egiteko eta dagokion udaletxean aurkezteko.

Aurreko ekainaren 27ra arte 2017. urtean 50 urte egiten zituzten eraikinei zegokien aurkeztea, baina hemendik aurrera urtero-urtero 50 urte egiten duten beste eraikinek ere aurkeztu beharko dute ITE-a.

Baina ez al dugu esan 50 urte baino gehiagoko eraikinen %17k besterik ez duela ITE-a dagokion epean aurkeztu? Eta zer gertatuko zaie eraikin horietako jabeei? Badaude isunak aurreikusita? Administrazioak zigortuko ditu? Beste epe gehigarri bat emango zaie? Eta fin-fin ibili direnentzat zer, ez dute oparirik edukiko?

Tamalez ez daukat erantzunik galdera horiei guztiei erantzuteko. Beharbada udaren ostean, abuztuan, administrazioak txintik ere ez duelako esaten, berriekin aurkitu gaitzke eta bizilagunen batek jasoz dezake ITE-a aurkeztu ez izanagatik isunen bat edo beste. Agian hori gertatu beharrean beste epe bat emango diote... Nork daki.

2006. urteko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeak arautzen zuen orduko eraikinek ikuskapen teknikoak jasoz behar zituztela. Baina sei urte gehiago pasatzen izan behar dira eskakizuna finkoa izan arte. Ebazpena irten arte ez da ezer egin, eta azkenean 2012 urtean, ebazpenarekin ITE-ak egiteari ekin diogu. Hasiera batean oso galduak geunden denok, bai administrazioa, bai etxebizitza eta baita teknikariak ere. Baina, denbora aurrera joan ahala, ITE-aren prozesua finkatuz joan da eta gaur egun aski argi dagoen lana da.

2006tik honantz araudiak zorrotz joan dira eta urte batetik bestera betebeharrak gehiago ezarri dira, batez ere Europatik datozen aginteei erantzuna emateko. Horrela bada, 3 urteko epean arau mordoa jarri da indarrean, baldintzapenak handituz. 2015 urtean 3/2015 Etxebizitza Legea sartu zen indarrean. Horrek, beste gauza batzuen artean, aditzera ematen du bakarkako etxebizitzek ITE-a aurkeztu behar dutela.

Ikus dezakezue, gero eta eskakizun gehiago ditugu eta, ITE-a egiteak betebeharrak sortu arren, onurak ere eskaintzen ditugu, azken batean eraikinak inspezioa jasotzen baitu ibilgailuek bezala.

Horretaz gain, badakigu diru-laguntzak daudela eraikinetan lanak egiteko: irisgarritasun hobekuntzak direla edo eraginkortasun energetikoa dela, diru-sarrerak edukitzeak bizilagunek. Alde batetik IDAE-k ematen ditu (espainiar estatuko diru laguntzak dira) eta beste alde batetik IHOBE-k ere (Eusko Jaurlaritzaren bitartez). Argi izan behar dugu diru-laguntza batzuek ez direla gehigarriak, eta eskatu ere ongi eskatu behar ditugula; bestela, bizilagunek diru-sarrera hori galdu dezakete. Eta, azkenik udalek aurreikusten dituzten diru-laguntzak ere badaude, adibidez Eibarko Udalak irisgarritasun baldintzak ho-

betzen dituzten lanen kopurua ordaintzen lagutzen du.

Baina, diru-laguntza horietaz aparte, ITEak onurak dakartzio eraikinari, adibidez:

- Bizilagunen bizitza kalitatea hobetu
- Etxebizitzaren balioa handitu
- Erosoago eta lasaiago bizi
- Zaharberritzerako laguntzak jasoz

#### **Eta zelako gauzak antzeman ditzake ITE batek eraikin batean?**

- Amianto (debekaturiko materiala)
- Arrakalak (eraikinaren egiturak hor nonbait jasan duen mugimenduen seinale)
- Fatxada zaindu gabe izatearen ondorioak
- Ur sarrerak eraikin barrura



#### **Eta ITE-a egin eta gero zer?**

Ba... Derrigorrezkoak diren lanak berehala egin behar dira, urtebeteko epean arriskua izan dezaketelako. Akats horiek konponduta tekniko batek ziurtatutako txosten baten bitartez udaletxean justifikatu egin behar da konponketa behar den bezala egin dela, eta hortik aurrera 10 urteko bermea dute, eraikinaren ITE-a osoak bezala.

#### **INTERESGARRIAK DIREN WEB-AK:**

[www.idae.es](http://www.idae.es); [www.euskoregite.com](http://www.euskoregite.com);  
[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)

#### **GAIARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO:**

<https://www.facebook.com/EstudioEtxeberria/>

## Zarautz garaile Jose Mari Kruzetaren omenezko Eibarko Hiria 34. xake txapelketan

Euskal Herri guztitik etorrirako 14 taldek hartu zuten parte Jose Mari Kruzetaren omenezko Eibarko Hiria 34. xake txapelketan, euretako bi Eibarko Klub Deportiboko jokalariekin osatutakoak. Euria egiteko arriskua zela-eta, udaltxeko arkupeetan jokatutako 13 partiden ostean, Zarautzko taldea izan zen garaile, 43 punturekin. Bigarren sailkatu zen, puntu erdira, Errenteriako Fomento Culturaleko taldea eta hirugarrenen, berriz, Donostiako Gros Xake Taldea, 38 punturekin. Eibarko taldeei dagokienez, Jon Arana, Jose Antonio

Garrido, David Perez, Adrian Martinikorena eta Oier Garciak osatutakoak 20 puntu eta erdi lortu zituen.; Xabier Beorlegi, Emilio Jose Freire, Asier Ibaibarriaga, Aitor Beorlegi eta Lander Ajak osatutako boskoteak 12 eta erdi lortu zituen. Honakoak izan ziren mahai baikoitzeko jokalaririk onenak: lehen mahaiari, Jose Antonio Landa (Gasteizko Bodegon Gorbea); bigarrenen, Juan Luis Alfaro (Errenteriako Fomento Cultural); hirugarrenen, Mikel Vicente (Zarautz); eta laugarrenen Iñigo Galarza (Errenteriako Fomento).



Zarautzko taldekoek irabazitako sariarekin; eurekin, Margari Olañeta eta Jon Arana xake batzordeko arduraduna.

Eibarko Klub Deportiboko Xake batzordeak ikasturteari amaiera emateko lehiaketaren sari banaketa Margari Olañeta (Jose Mari Kruzetaren alargu-

na) eta Jon Aranak (batzordeko presidentea) gidatu zuten eta, ondoren, parte-hartzaile guztiei anaitasun-afaria eskaini zieten Eibarko Casino Jatetxean.



## Esperientzia handiko Realeko lau jokalaririk fitxatu ditu Eibarrek

Cristina Cornejo 26 urteko atezaina, Itziar Gastearena 25eko hegaleko atzelaria eta Leire Fernandez (26 urte) eta Titay Calvo (27) erdilariak sinatu dute kontratua 2. Maila Nazionalen jokatzen duen Eibar Foball Taldearekin. Laurek aurten laga dute Donostiako taldea, hainbat denboralditan jokatu ondoren: Cornejo atezainak bederatzia egin ditu bertan, Gastearena atzelariak zortzi, Fernandezek lau eta Calvok hiru. Eibartarrek hirugarren postuan amaitu zuten azken denboraldia eta epe ertainean 1. Mailara igotzeko asmoa ere badute zuzendaritzan.

## Izen-ematea Kirol Patronatoan



Eibarko Kirol Patronatutik bidalitako oharraren arabera, bertako bazkideek datorren astelehenean aurrera egin ahal izango dute iraileko ikastaroetarako inskripzioa, "haurren igeriketarako salbu". Abonatuak ez direnek, bestalde, hurrengo egunetik aurrera eman ahal izango dute izena.

## Aitor Monterok denboraldiko lehen garaipena eskuratu du

Eibartarrak balio handiko garaipena lortu zuen Albaceteko Mantxako zirkuituan, Abiadurako Erkidegoen Artek txapelketaren barruko laugarren proba puntuagarrirako. 220 piloto izan ziren parte hartzen eta, hori gutxi baliatuz, Aitor Monterok 38 graduko tenperaturari egin behar



izan zion aurre lasterketa irabazteko. Pilotu guztientzat gogorra izan zen proban progresio bikainean jardun izan zuen eibartarrak, lehenengo bihurturik zortzigarren sartu eta, hainbat postu irabazi ondoren, azken itzulian lehen postua eskuratu arte. Ondo merezitako lorpena, beraz, Monteroren Albaceten, berak "bereziki taldeko partaide diren guztiei eta babesle" esker-tzen diena.

## Herriko atletak lehiaketaz lehiaketa

Espainiako 20 eta 18 urtetik beherako txapelketekin batera, Euskadiko 60 urtetik beherakoa ere jokatu zen orain dela 15 eguneko asteburuan. Goi-goian izan ziren azken horretan Garoa Magunazelaia, Eneko Larrea eta Nora Zabala eibartarrak Gasteizen jokaturako jardunaldian. Magunazelaiak urrezkoa irabazi zuen disko, pisu eta jabalina jaurtiketetan eta brontzezkoa mailuarekin. Larreak altuera jauzian irabazi zuen eta hirugarren izan zen pertigarekin. Eta Zabala 2. izan zen disko jaurtiketan, 3. jauzi hirukoitzean eta 4. luzera jauzian. Murtzian jokaturako 20 urtetik azpikoan Espainiako txapelketan, Julen Teran 3. izan zen 3.000 oztopoetan, Markel Gu-

tierrez bosgarren 10 kilometroko martxan, Andoni Egurrola eta Jone de Castro zazpigarrenak jabalina jaurtiketan, eta Andoni Calbanok bere marka hobetu zuen 200 metrokoan, finaletik kanpo geratu arren. Azkenik, Xixonen jokaturako 18 urtetik azpikoenean Eneko Osoro 18. sailkatu zen eta bere marka hobetu zuen martxa modalitateko 10 kilometrotan. **Azken asteburuan**, bestalde, Espainiako beste bi txapelketatan izan dira Klub Deportiboko ordezkariak: Castellón jokaturako 16 urtetik beherakoenean, Eneko Larrea hirugarren izan zen altuera jauzian eta Garoa Magunazelaia zazpigarren jabalina jaurtiketan; eta Iñigo Egidazuk Gasteizen jokaturako



Julen Teran podiumera igo zen Murtzian.

Master txapelketan hartu zuen parte 100 eta 200 metroko lasterketetan, finaletarako txartelik eskuratu ez bazuen ere.

## Deltecoko triatletak Lekeition eta Mutrikun izan dira parte hartzen



Mutrikun proba hasi aurretik.

**Azken asteburuan Mutrikuko V. Triatloi Sprint-ean eguraldi kaskarrari aurre egin zioten** hainbat eibartarrek eta, horrez gain, emakumezkoetan ohorezko postuetan izan genituen: Aitziber Urkiolak hirugarren egin zuen eta Ane Ziaranek bosgarren. Deltecok zazpi ordezkari izan zituen proban eta Txomin Osoro (16. postuan) eta Jon Illarramendi izan ziren onenak. Illarramendik 59. postuan amaitu zuen, baina onena izan zen bere mailan. Roberto Gartzia (92), Carlos Javier Perez (125), Alberto Agirre (140), Oskar Iriondo (147) eta Adrian Galan izan zituzten taldekide Mutrikun.

### Bederatzi ordezkari Lekeition

Astebete lehenago Lekeitioko triatloi esprintean hartu zuten parte Deltecokoek, zortzi gizonezko eta emakume bakarrarekin. Malen Zamakolak 45. postuan amaitu zuen eta gizonezkoetan Roberto Gartzia izan zen aurrena helmugaratzen, 145. postuan.

Asteburu bereko domekan bi ordezkari Logroñoko triatloi half-ean hartu zuten parte: Gonzalo Saezek 102. postuan amaitu zuen eta Mikel Laskurainek 206.ean. Eta Landako urtegiaren egindako brazada solidarioen jardunaldian Esther Pageik eta Moises Altunak 3.800 metro egin zituzten.

*aire garbiaren bila*

## Bizkaiko Biraren 17. etapa egingo dute uztailaren 14an

Zailtasunik gabeko 21 kilometroko ibilbidean Tellamendi mendia igoko dute Besaidera iritsi aurretik

Bizkaiko Biraren azkenurreko etaparen atarian daude dagoeneko Eibarko Klub Deportiboko mendizaleak, Otxandion hasi eta Elorrion amaituko den etaparen zain. Ibilbidearen zati handi batek Urkiolako Parke Naturaleko esparrua zeharkatzen du eta Anboto mendi ondotik pasatzen da. Eguraldia lagun badute, paraje ederretik gozatzeko aukera ezinhobea eskaintzen zaie. Bide erraza du ibilaldiak, bide erdian Tellamendi (834 m.) igotzeko. Aurrerago Anboto eta Udalaite artean dagoen Besaidera iritsiko dira (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia batzen dira hor). euskal mendizaleentzako toki berezira, bertan dago eta mendi-istripuetan hildako mendizaleei egindako monumentua. Hilaren 14ko irteera goizeko 07:00etan egingo dute, autobusen geltokitik

**Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzenetan eta eguenetan (19:30-20:30).**



Deporreko mendi batzordeko saiatueneren taldea Besaiden izan da aurretik.

## Euskal Herriko hainbat igeriketa txapelketa jokatu dira azken asteotan

Ekainaren 22tik 24ra artekoan junior eta absolutu mailakoak jokatu ziren **Gas-teizko Mendizorrotzan** eta Gipuzkoako alebin mailako Adinetakoa Azpeitian; eta azken asteburuan Euskal Herriko infantil mailakoa Galdakaon eta alebin mailakoa Ordizian. Gipuzkoakoan Miren Galdos, Malen Beobide, Lucia Gabilondo, Leire Larrañaga eta Maddi Maguregik hartu zuten parte. Aitzol Arrillagak aurkeztutako boskoteak bikain jardun zuen: Galdos lehena izan zen 100 metro bizkarrean eta bigarren 100 estiloetan eta 200 bizkarrean, Beobide 2. izan zen 400 metro estiloetan eta 3. 100 metrokoan, Gabilondo 2. helmugaratu zen 100 metro estiloetan eta 3. 400 estiloetan eta 200 bularrean, eta Maguregi 3. izan zen 100 metro bizkarrean. Horrez gain, gaixorik aurkeztu zen Larrañagak ere lortu zuen Ordiziarako sailkatzea. Azken asteburuan Ordiziako Majori kiroldegian jokatutako Euskal Herrikoan izan da aipa-

*Ekainaren 28an lehenengo txangoa egin zuten Debara Eibar Igerixan taldekoek. Asko hurrengo irteeraren zain daude dagoeneko.*



Miren Galdos.

tutako boskotea eta, *“lan ederra eginez, euren markak hobetu dituzte, erreleboetan ere bikain jarduteaz parte”*. Lucia Gabilondok, gainera, 100 estiloetan gutxiengo marka eskuratu zuen hilaren 19tik 22ra Sabadellen jokatu den Espainiako Txapelketa parte hartzeko.

Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Galdakaon jokatutako infantil mailako Euskal Herrikoan Paula Gabilondo, Iraia Orue-zabal eta Kai Zubiaurrek osatu zuten Eibar Igerixan klubeko ordezkariak. Hirurek euren markak hobetzeaz gain, Gabilondok zilarra lortu zuen 100 estiloetan eta brontzea 100 bularrean. 200 bularrean Espainiakorako txartela lortzeko hiru hamarre-

kotara gelditu zen, baina 100ekoan lortutakoak Madril hilaren 26tik 29ra jokatuko den Espainiako txapelketan izateko aukera emango dio.

Azkenik, Mendizorrotzan jokatutako junior eta absolutu mailako Euskal Herrikoan Eduardo Lopez Reta entrenatzaileak bost laguneko ordezkariak osatu zuen Eibar Igerixanekin. Maite Barruetabeña eta Jon Osa nabarmendu ziren, batez ere: Barruetabeñak zilarrezko bost irabazi zituen, urrezko eta brontzezko banarekin batera; eta Osak urrezko, zilarrezko eta brontzezko bana irabazi zituen. Roke Etxebarría, Elene Oiarzabal eta Kattalin Izagirrek osatu zuten boskotea.

## Eibarko ordezkariak irabazle Astelenako sanda borroketan

San Juan jaietako egitarauaren barruan Astelena frontoian jokatutako **boxeo gauean**, Sergio Osua eta Andoni Morgade nagusitu egin ziren euren borroketan. Osuak puntuetara irabazi zion Adria Wenzeslaori, esperientzia gehiago duela erakutsiz; eta Morgade ere puntuetara nagusitu zen, inolako erraztasunik eskaini ez zion Jesus M. Guzmanen aurrean.

Emakumezkoen arteko lehiari Aina Torbiciok irabazi zuen jendearen txaloen artean eta borroka guztiek maila eman zuten, zaletuek gradetan eskainitakoaren pareko. Antolatzaileek ekitaldia aprobetxatu zuten Jose Perez Cid “Amañako Tigrea” omentzeko, *“Eibarko boxeoaren alde egingako guztiagatik”*.



## Arrazolak beteranoenaren saria jaso zuen Treparriscosen

Uztailaren 23an 81 urte egingo dituen Jose Mari Arrazola eibartarrak beteranoenaren sari berri bat irabazi zuen ekainaren 23an jokatutako 100 kilometroko Treparriscos proban. Azken hau Quebrantahuesos ospetsuaren egun berean jokatzen da eta Arrazolak fin-fin jarraitzen du urtero parte hartzen, kale egin barik.



## Eibarren EUSKARALDIAREN ENBAXADORE izango den "hamaikakoa" aurkeztu dute

**A**zaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herriko 350 bat herririk, tartean Eibarrek, EUSKARALDIA egitasmoan parte hartuko dute. Euskaltzaileen Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak abiatu duten ekimenaren berri eman eta informazioa zabaltzeko herrietan batzordeak eratu dira, eta Eibarren AKEBAL herri-plataforma ari da horretan. Hala ere, herritarrak aktibatuzko eta zabalkundea errazteko, Hamaikakoa osatuko dira, borondatez "Euskaraldia, 11 egun euskaraz" ekimenean ahobizi, belarriprest eta bihotzgoxo rolen bitartez parte hartzea erabaki dutenekin, eta aurreko astean aurkeztu zuten Eibarko Hamaikakoa: Ane Sarasua, Arrate Balentziaga, Eva Egiguren, Felix Morquecho, Ghita Ourdi, lokin Elortza, Juan Jose Flores, M<sup>o</sup> Jose Iriondo, Mireia Alonso, Pello Osoro eta Zaloa Urain.

Herritarren izen-ematea irailaren 20tik aurrera egingo da eta, horretarako, 16 ur-

te edo gehiago izan beharko da. Hala ere, aurrerago egingo dira informazio bilerak, azalpenak emateko bisitak eta beste hainbat ekintza, herritarrek informazio guztia jaso dezaten.

Hizkuntza ohiturak astindu eta euskaraz bizitzeko urratsak ematea da Euskaraldia-ren helburua. Bakoitzak hartzen duen konpromisoaren arabera, 11 egunez (azaroaren 23tik abenduaren 3ra) rol bat izango du: ahobizi, belarriprest edo bihotzgoxo. Rolak identifikatzeko bereizgarri bat, txapa bat eramango du bakoitzak.

### Debabarrena ere elkarlanean Euskaraldia prestatzen

Eibarren aurkezpena egin eta hurrengo egunean, ekainaren 27an, Debabarreneko 80 lagun batu ziren Debako Zubi Zaharrean Euskaraldia ekimena bailaran elkarrekin egingo dutela azaltzeko. Izan ere, Debabarreneko herri guztietan Euskaraldia

prestatzeko lanetan dihardute, herritarrak eta erakundeak elkarrekin, datorren azaroaren 23rako dena ondo antolatuta izateko. Mallabia, Ermua, Eibar, Sorluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku herriek dagoeneko eman dute izena Euskaraldian parte hartzeko, Euskal Herri mailan 350 herri, auzo eta hiritan batera egingo den ariketa soziala gauzatzeko. Deba bailara oso-osoa parte hartuko du: Leintz-Gatzagan hasi eta Mutrikuraino.

### Hamarretik zortzik badaki euskaraz

Zortzi herrietako datuak bateratuta, Debabarrenean, ezagutzari dagokionez, %58,6 dira euskaldunak, %20,8 ia-euskaldunak eta %20,5 erdaldunak. Orduan, 10etik 8k euskaraz ulertzen du eta 10etik 6k euskaraz aritzeko gaitasuna dauka. Euskaraldia ariketa praktikoa izango da, erabilera erdigunean jarriko duena, eta ingurua eta herritarrak prestatuta, hamaika egunetan



Pello



Ghita



Jokin



Ane



Arrate

euskararen erabilera handitzea eta esparru berrietara zabaltzea izango du helburu, erabilera datuak ezagutzarenera gerturatzea.

**Errealitate desberdinak, ariketa bakarra**

Ez neurritz, ez izaeraz, ez soziolinguistikoki... ez dute antz handirik, ezberdinak dira bailarako herriak, baina praktika bera erabiliko dute eguneroko hizkuntza ohiturei astindua eman eta euskararen erabilerari bultzada emateko: ahobiziak eta belarriprestak aktibatu, prestatu eta hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, aproba eginda. Hala, ahobiziek euskara ulertzen duten guztiakin euskaraz egingo dute (lanean, etxean, lagun artean...), baita ezezagunekin lehen hitza, gutxienez, ere; belarriprestek berriz, dakiten guztiari euskaraz egiteko gonbitea egingo diete, beraiekin euskaraz egiteko eskatuko diete, nahiz eta belarriprestek euskaraz edota erdaraz erantzun. Bihotzgoxo gure herrian egongo den beste figura bat da eta, euskara ulertu barik, bere aurrean besteak euskara erabiltzen dutenean pozten direnak dira. Herritar bakoitzak erabakiko du nola parte hartu nahi duen ekimenean eta zein txapa jantziko duen; aldi berean, ekimena kolektiboa izango da eta Debabarrenean euskaraz bizitzeko aukera handia dagoela bistarazi eta sentitzeko aukera eskaini nahi dute Euskaraldia ekimenaren bitartez.

**Proba egiteko prest? Zu zer izango zara?**

**Ahobizi:** euskaraz badaki, eta euskaraz bizi nahi du, baina batzuetan bere egunerokoan (ohituragatik, besteak erdaraz aritzen direlako, edo besteak ulertzen ez dutelako) erdaraz egiten du. 11 egunez dena euskaraz egingo die ahobiziei, belarriprest-



Juan Jose



Zalao



Mari Jose



Eva



Mireia



Felix



Hainbat herrialdetako ordezkariak eskualdeko aurkezpenean hartu zuten parte Debako zubian.

tei eta euskara ulertzeko gai direnei, horiek erdaraz erantzun arren. Bihotzgoxoei eta ezezaguneei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo die.

**Belarriprest:** euskaraz ulertzen du, baina arrazoi ezberdinengatik (ausartzen ez delako, ohiturarik ez duelako, erraztasunik ez duelako...) normalean ez du euskaraz berba egiten. 11 egunez dakienari berarekin euskaraz egiteko esango dio, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren. Bihotzgoxoei eta ezezaguneei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo die.

**Bihotzgoxo:** ez du euskara ulertzen, baina gustoko du ingurukoak euskaraz aritzea. 11 egunez pozik hartuko du ahobiziek eta belarriprestek berari lehen hitza euskaraz egitea, eta taldean daudenean ondo ikusiko du ahobiziek euskaraz egitea.



**DANI ASTARLOA, DAVID TIJERO  
ETA MIKEL URIONAGUENA**  
(argazkilariak)

## “Berlini buruz daukagun inpresio ezberdina ikusten da lanetan”

Dani Astarloa eta Mikel Urionaguenak gaztetatik elkar ezagutzen dute, eta BlackKamera argazkigintza-eskolan egin zuten topo David Tijerorekin. Gauza ugari ikasi zituzten fotoerreportaje ikastaroan eta Berlinen inguruan proiektu bat gauzatu dute. Arrate Kultur Elkarteak antolatzen duen Ikusentzunezkoen astean aurkeztu zituzten euren lanak eguaztenean eta, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jendea bildu zen San Andres elizako klaustroan. “Eskerrak eman behar dizkiegu Kultukoei aukera horientatik”.

**- Berlin da zuen lanen protagonista. Zergatik Berlin?**

**Dani:** Egia esan bi protagonista daude, bakoitzak bina lan prestatu ditugulako. Batetik, Berliner buruzko lanak daude; eta bestetik, BlackKamerako ikastaroan egin ditugun lanak.

**David:** Berlin oso toki interesgarria da. Hiri handia, baina ezberdina. Arlo kultural garrantzitsua dauka, historia aldetik oso handia da eta oso ikusgarria. Arkitektura aldetik dena eraberrituta dago eta bertan sentitzen den askatasun sentsazioa gustatzen zait.

**- Bakoitzak bere aldetik landu du gaia?**

**Mikel:** Bakoitza bere aldetik joan da eta lanetan ikusten da gutako bakoitzak Berlini buruz daukagun inpresio ezberdina, nolako sentsazioak jaso ditugun eta bakoitzaren ikuspuntua.

**- Nahiz eta bakoitzak bere aldetik lan-**

**du, Berlinera joan aurretik horrelako lan bat egitea pentsatuta zeneukaten?**

**Dani:** Ni argazkiak egitera joan nintzen espreski eta gero, materialarekin, muntaia egin nuen.

**David:** Ni 7-8 aldiz egon naiz Berlinen eta argazkiak egin ditut joan naizen bakoitzean. Nire asmoa argazkiekin zerbait egitea zen.

**Mikel:** Ikastaroan elkartu ginenean kointziditu du hirurok geneuzkala Berlini buruzko argazkiak eta bateratzea erabaki genuen.

**- Nolako prestaketa lana izan da?**

**Dani:** Nire zatia iaz prestatu nuen eta, aurten egindako ikastaroa jaso eta gero, beste modu batera egingo nuke. Horrelako lan batean zer jartzen duzun eta zein hurrenkeran jartzen duzun, lanaren erdia edo gehiago da. Argazkiak atera ditzakezu, baina horiek nola jarri jakin be-

har duzu. Kontua ez da argazkiak bata bestearen atzetik kokatzea.

**- Zer bilatu nahi izan duzue?**


**David:** Nik ordu asko sartu ditut lana eginen, baina oso gustora. Jolastea bezalako izan da. Ni Berlineko giroa islatzen saiatu naiz, urtariletik abendura nolako hiria den erakustea eta noraezean ibiliz gero hirian aurki daitezkeen gauza harri-garriak ikusaraztea.

**Mikel:** Nik bideoa prestatu dut. Ez ditut hiriko toki famatuak grabatu, baizik eta metroko giroa, jendea, ekialdeko aldeko bidegurutzetako bat... nire ibilbideetan momentuan jasotako sentsazioak azken finean.

**- Zuen lehen proiektua da. Bigarren bat egitea pentsatu duzue?**

**Dani:** Bai. Egin dugun ikastaroa mugarrria izan da argazkigintza tratatzerako orduan eta gauzak egiten jarraituko dugu.

## Hiru erakusketa berri zabalduta agurtuko dute ikasturtea Deporreko argazkilariak



Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak ikasturteko azken hiru erakusketak prestatu ditu uztaileko: hilaren amaiera arte Arturo Gonzalez Ascasoren argazkiak, M<sup>o</sup> Luisa Rubioren poesiekin batera, Klub Deportiboan ikusteko aukera izango da. Portalea jatetxean, berriz, aurtengo Argazkilaritza Maiatzean agurtzeko egin zen Argazki Rallyra aurkeztutako lanak ipini dituzte ikusgai; eta El Ambigú kafetegian Jose Luis Irigoienek Saharako kanpamentuetan egindako argazkien erakusketa dago zabalik.

## Txosnetan saldutako errifan zozketian 1337 eta 30 zenbakiei egokitu zaie saria

Aurtengo Sanjuanetan Jaixak Herrixak Herrixandakok eta Txosna Batzordeak saldutako errifan zozketa San Juan Txiki egunean egin zuten eta hauek dira zenbaki sari-tuak: lehen saria, lau lagunentzat afora Casino jatetxean, 1337 zenbakiari egokitu zaio (erreserba 205) eta bigarren

saria (lau lagunentzat afora Hirurok jatetxean), berriz, 30 zenbakiarentzat izango da (erreserba 1249). Sari-tutako zenbakiren bat izanez gero zozketaren arduradunekin kontaktuan ipini lehenbailehen, saria jasotzeko azken eguna uztailek 15 da-eta.





## “Recuerdos Amañados”, Baroja Colleten erakusketa Amañan

Amañako jaien aitzakiarekin, aurreko barixakuan zabaldu zuten “Recuerdos Amañados”, Juan Luis Baroja Collet artistaren erakusketa auzoan, Amesti tabernako aldapan dagoen lokalean. Jaiak irauten duten bitartean, domekara arte egongo da ikustera joateko aukera, gaur 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Erakusketan, besteak beste, jaien 40. urteurrena dela-eta artistak sortu duen grabatu kalkografikoaren hainbat bertsio ikus daitezke, beste irudi batzuekin batera eta, horrez gain, tamaina ezberdinetako eskulturak ere ipini ditu ikusgai.



## Arrateko bertso-afariko sarrerak salgai bazkideentzat

...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideentzat daude salgai sarrerak joan den astelehenez geroztik ...eta kitto!-n (Urkizu 11 solairuartea), eta hurrengo aste osoan ere, uztailearen 13ra arte, izango dute erosteko aukera, 31 eurotan. Bazkide bakoitzak asko jota bi sarrera eskuratu ahal izango ditu. Uztailearen 14tik aurrera, berriz, ohiko lekuetan salduko dira 32 eurotan: Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian.

Aurten ere, ...eta kitto!-ko bertso-taldeak maila altuko laukotea ekarriko du Arrate bezperan Kantabria jatetxera: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso “beteranoei” Aitor Sarriegi beasaindarra batuko zaie, eta gai-jartzaile lanetan Jon Mikel Mujikak jardungo du berriro.



## Pailazoen ikuskizuna

Hasieran beste egun baterako iragarrita zegoen Monda eta Lironda pailazoen ikuskizuna gaur arratsaldean, 17:30ean izango da, El Corte Ingleseko 3. solairuko terrazan (euria eginez gero, ekitaldi aretoan). Apikaren eskutik eskainiko den umeendako ikuskizunerako sarrera doan izango da.



## Kantabriara irteera eta ikastaroa

Untzaga jubilatutako etxekoek Kantabriara, El Soplao kobazulora irteera antolatuta uztailearen 17rako. Autobusa 08:00etan irtengo da Ego Gaietik eta prezioa 27 eurokoa da, bidaia, kobazulora bisita eta bazkaria barne. Izena emateko epea zabalik dago. Bestalde, astelehenean hasiko da komunikazioa eta gizarte-abileziak lantzen ikasteko kurtoa. Klaseak hilaren 9, 11, 16, 18 eta 20an izango dira, jubilatutako etxean, 16:30etik 19:30era eta Ana Fernandez psikologoak emango ditu. Izena emateko 663057223 telefonora (Pedro Bilbatua) deitu edo, bestela, formakuntza@laharelkargoa.org helbidera idatzi daiteke. Foru Aldundiko Gizarte Politika Arloak diruz lagundutako ikastaroan parte hartzea doan izango da.

## XOLE AZKUE FERNANDEZ


– 5. urteurrena: 2013-07-03 –



*Maitasunak unibertsoan  
zehar sakabanaturiko  
ur tanta gazi gara.*



## Atzo zabaldu zuten Jose Kareagaren lanen erakusketa Zumaian



Jose Kareaga Guridi (1930-2008) grabatzaile, pintore, bitxigile eta damaskinatzaile eibartarra hil zela 10 urte betetzen zirela eta, berak egindako artelanen erakusketa zabaldu zuten Portalean iaz, Gabonak aldera. Kareagak egindako lanaren zati bat, batik bat haren margolanak eta grabatuak ikusteko aukera aparta izan genuen eta oso harrera ona izan zuen erakusketak. Horrekin animatuta, erakusketa Zumaian zabaldu zuten atzo. Uztailaren 22ra arte nahi duenak Oxford aretoan ikusteko aukera izango du, astegunetan 18:30etik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.


Zumaiako Udalaren laguntzarekin erakusketa antolatuta duten senideek azaldu dutenez, "grabatuaren bitartez izan zuen Josek lehen kontaktua Zumaiarekin. Izan ere, 50. hamarkadan grabatzaile eibartarrak Ignacio Zuloagaren etxe-

museoa bisitatzera joaten ziren eta, ondoren, Estaziño kaleko Uranga jatetxean bazkaria egiten zuten. Jose gaztea aita eta aitxixarekin batera joaten zen eta ordurako pinturarekiko zein Zumaiarekiko grina sentitzen zuen. Handik urte batzuetara, 1962an ezkondu eta udak Zumaian pasatzen hasi zen. Grabadore moduan egiten zuen lanak ez zion margotzeko denbora askorik lagatzen eta, horregatik, bere margolan gehienak jai egunetan eta oporretan egindakoak dira. Beraz, urteekin estudioa Zumaian ipini zuen eta, 2008an hil zen arte, han egoten zen margotzen. Azken koadroa, bera jaio zen "Errebal" kalekoa, oraindik estudioan dago, astoan, pintzelak aldamenean dituela".

Zumaiako erakusketa zabaltzearekin batera, [www.josekareaga.eus](http://www.josekareaga.eus) web orria ipini dute martxan, "horrela ahalik eta jende gehienak artistaren lan oparoarekin gozatzeko aukera izan dezan".

## Uztailaren 16an zabalduko da "Harixa Emoten" irakurketa-taldean izena emateko epea

Karlos Linazasoro, Garazi Arrula Ruiz, Gotzon Herмосilla eta Maixa Zugasti idazleak izango dira, besteak beste, irailetik aurrera Eibarko udal liburutegiak antolatzen duen euskarazko "Harixa Emoten" irakurketa-taldean. Eibarko Udal Liburutegiak uztailaren 16an zabalduko du "Harixa Emoten" irakurketa-taldean izena emateko epea eta irailaren 7ara arte izango dute horretarako aukera jarduera horretan parte hartu nahi dutenek. Euskaraz izaten diren saio hauetan idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizi-penak elkartrukatzeko aukera eskaitzen die, aurrez aurreko solasaldien bitartez. Hilean behin elkartzen dira Portaleko Kulturako bilera gelan 19:00etatik 20:00etara eta dohainik izaten da. Saioretara joateko konpromisoa eskatzen da behin izena emanaz gero eta solasaldian parte hartuko duen bakoitzari liburua



lortzeko konpromisoa hartzen du Liburutegiak. Horretarako, aldez aurretik izena eman behar da. Izena eman nahi dutenek Liburutegira jo beharko dute, edota telefonoa edo emaila erabil dezakete. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte eta gehien jo-ta 20 pertsona onartuko dira taldean. Gehiago izanez gero, zozketa egingo da. Lehen saioa irailaren 25ean izango da eta Karlos Linazasororen "6012" liburua aztertuko dute.

## Martxan dago Indalezio Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketa

Eibarko Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz, 2018ko Indalezio Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketarako deia egin du. 2018ko Argizaiola Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria den lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte, norberaren aukerako gaiaren inguruko argazkiekin. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez ere 3 argazki aurkeztu ditzake zuri eta beltzean, eta beste horrenbeste koloretan. Lanak inoiz saritu gabeak izan beharko dira eta 40 x 50 zentimetroko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira. Lan bakoitzaren atzealdean lanaren izena zein den azaldu beharko da (egile bakoitzak izen berbera jarri beharko die aurkezten dituen argazki guztiei eta, argazkiak hurrenkera jakin batean

ikustea nahi izanez gero, zenbakituta aurkeztu beharko dira). Horrekin batera, egilearen datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa...) kartazal itxi batean joan beharko dira. Lehiaketarako lanak helbide honetara bidali beharko dira: Eibarko Udala-Kultura arloa; Indalezio Ojanguren XXXI. Argazki Lehiaketa; Portalea (Bista Eder, 10). Lanak aurkezteko epea irailaren 3tik 28ra bitartekoa izango da eta irabazleak zeintzuk diren, berriz, urriaren 6an erabakiko dute. Betiko moduan sari garrantzitsuak banatuko dituzte kategoria bakoitzeko onenen artean. Informazio gehiago nahi duenak 943 708 435 telefono zenbakira deitu, [kultura@eibar.eus](mailto:kultura@eibar.eus) helbidera idatzi edo [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean begiratu dezake.



### Sallabente auzoko jaiak ERMUAN

Asteburu honetan ospatuko dira Sallabente auzoko jaiak Ermuan. Erdi Aroko Azoka izango da ekitaldirik garrantzitsuenetakoa, baina, horretaz gain, egitarau betea prestatu dute. Esate baterako, gaur Sta Zitto talde ermuarrak kontzertua eskainiko du gauerdian. Bihar, zapatua, 19:00etatik aurrera, sardina eta saiheski jan herrikoia izango dira, eta beste behin musikarekin amaituko da programazioa, Turdion, Lugh eta La Bohemia taldeen emanaldiekin. Igandean, 18:00etatik aurrera, San Lorenzo ikastetxekeo patioan herriko atleten pertika jauzi eta altuera jauzi erakustaldiak izango dira.



#### Gazte Eguna ERMUAN


VI. Gazte Egunaren harira antolatutako ekitaldien barne, bihar, Salda dago, Tremenda Jauria eta Cooleroak taldeen kontzertua egongo da Ermuko plazan, 21:30etik aurrera.



#### Frantziako musika Paddam bikotearekin SORALUZEN

Bihar, zapatua, 20:00etatik aurrera, 'Le Récital de la Chanson' ikuskizuna eskainiko du Paddam musika-bikoteak (Estefanía Sáez Wulf eta Iñaki Miguel Camio). Ekitaldia Plaza Berrian izango da, eta, euria eginez gero, Antzokian.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)



### hildakoak

- **Jesus Cano Gorroño.** 56 urte. 2018-VI-20.
- **Elena Ezenarro Serrano.** 95 urte. 2018-VI-20.
- **Julian Santamaria Contreras.** 72 urte. 2018-VI-21.
- **Elisa Nieto Meire.** 89 urte. 2018-VI-22.
- **Silvia Milena Castañeda Cardona.** 48 urte. 2018-VI-22.
- **Josefina Mujika Azkoaga.** 91 urte. 2018-VI-23.
- **Alberto Yarza Arrizabalaga.** 86 urte. 2018-VI-26.
- **Isabel Picazo Jimenez.** 94 urte. 2018-VI-28.
- **Mariano Aparicio Ramos.** 85 urte. 2018-VI-29.
- **Juanita Urionaguena Huarte.** 91 urte. 2018-VI-29.
- **Modesto Salgado Cid.** 77 urte. 2018-VI-30.
- **Jose Aranguren Arrieta.** 90 urte. 2018-VI-30.
- **Florencio Lekunberri Ibarzabal.** 94 urte. 2018-VI-30.
- **Sabino Barrenetxea Alberdi.** 63 urte. 2018-VI-30.
- **Agustina Askasibar Lauzirika.** 88 urte. 2018-VII-1.
- **Doroteo Martin Bello.** 85 urte. 2018-VII-1.
- **Dolores Marmol Cañas.** 83 urte. 2018-VII-1.
- **Emilia Moreno Baez.** 66 urte. 2018-VII-2.
- **Fernando Ruiz Pelayo.** 73 urte. 2018-VII-3.
- **Mª Angeles Brigos Gonzalez.** 91 urte. 2018-VII-3.
- **Justina Larrañaga Askasibar.** 90 urte. 2018-VII-3.

### farmaziak

- Barixakua 6**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 7**  
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 8**  
EGUNEZ **Mandlola** (San Agustin, 3)
- Astelehena 9**  
EGUNEZ **Castañero** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 10**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 11**  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 12**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 13**  
EGUNEZ **Castañero** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2018AN-  
**Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### jaiotakoak

- **Marwa Aarab.** 2018-VI-18.
- **Cloe Ibañez Crespo.** 2018-VI-26.
- **Xuban Uzuriaga Aramendi.** 2018-VI-30.

### SUDOKUA

AURREKOAREN  
EMAITZA

5	4	1	7	6	8	2	9	3
7	8	2	1	3	9	4	5	6
9	6	3	4	2	5	8	7	1
2	9	4	3	8	1	5	6	7
6	7	5	9	4	2	1	3	8
1	3	8	5	7	6	9	2	4
3	1	9	6	5	4	7	8	2
4	2	7	8	9	3	6	1	5
8	5	6	2	1	7	3	4	9

7			5		6			1
	8			9		3		
	5		2				8	
9	6				2			
		8				6		
			6				7	9
	7				5		6	
		1		3			5	
3			4		7			8

### telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udalitzategia.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 30 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepedeak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

## Barixakua 6

### PAILAZOAK

**17:30.** Monda eta Lironda umeendako ikuskizuna. Sarrera doan. El Corte Inglesean (3. solairuan, terrazan. Euria eginez gero, ekitaldi aretoan).

### AMAÑAKO JAIK

**18:00.** Koadrilen jaitsiera, Amañako dorreetatik, Ermuko Irulitxa txarangak lagunduta.

**19:00.** Jai-hasierako txupinazoa, Alain Albizu (Athletic kadeteak), Maite Markuerkiaga (Larragest) eta Roberto Lopez Etxeberria diseinatzailearen eskutik.

**19:15.** Omenaldia plazan, Amaña es la Caña-ren eskutik, eta Kezka Dantza Taldearekin.

**19:30.** Danborradako piezak joko dira, Amañako Jai Batzordearen 40. urteurrenaren harira.

**19:45.** Kalejira, Ermuko Irulitxa txarangak lagunduta.

**20:00.** Umeendako jokoak, Gorritirekin.

**21:00.** Elektro-txaranga.

**21:30.** Entziero txikia.

**21:30.** Herri-afaria, Amañako plazan.

**23:00.** Kontzertua, Deus Ez, Doctor Deseo eta Willis Drummond taldeekin.

## Zapatua 7

### AMAÑAKO JAIK

**11:00/14:30.** Errugbi-ekitaldiak eta stand-a, Eibar Rugby Taldearen eskutik.

**12:00.** Pintura aire librean.

**14:30.** Herri-bazkaria: paella.

**16:30.** Gaztelu puzgarriak, zezen mekanikoa eta espuma-jaia.

**19:00.** Helduen danborrada, Irulitxa txarangak lagunduta.

**21:30.** Entziero txikia.

**21:30.** Herri-afaria, Amañako plazan.

**23:00.** Kontzertua, La Guardia, La Frontera eta Canal 69 taldeekin.

**00:00.** Suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.

**00:10.** Kontzertuaren jarraipena.

## Domeka 8

### AMAÑAKO JAIK

**11:00.** Auzoan eta Eibarren hildako guztien aldeko meza.

**12:00.** Salda eta txorizoa bildutako guztientzat.

**12:30.** Umeen danborrada, Irulitxa txarangak lagunduta.

**14:30.** Ogitartekoak eta freskagarriak danborradako ume guztientzat.

**14:30.** Herri-bazkaria, "Alas para Aroa"-k eta Amaña es la Caña-k elkarlanean antolatuta.

**18:00.** Herri-kirolak: Inaxio Perurena eta Eibarko Iñigo Jimenez (harriak jasotzen) eta Mugertza aita-seeen (aizkorarekin) arteko lehia.

**19:00.** Nafarroako jotak.

**19:00.** Herri-txorizojana.

**20:00.** Sari-banaketa, auzokoentzat, Amaña es la Caña-ren eskutik.

**20:30.** 60. eta 70.

hamarkadetako herri-berbena, San D.J.-arekin.

### MUSIKA

**12:30.** Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzagan.

## Eguena 12

### ODOL-EMATEA

**18:00.** Odol-emaileentzat odola emateko saioa. Anbulatorioan.

### SAN KRISTOBALGO JAIK

**19:30.** Futbolin txapelketa,

Alkorta tabernak antolatuta.

**22:00.** Igel-toka txapelketa, Xania tabernan.

## Erakusketak

### Uztailaren 8ra arte:

- “RECUERDOS AMAÑADOS” JUAN LUIS BAROJA COLLET-EN GRABATU ETA ESKULTURAK (*Amaña,*)

### Uztailaren 22ra arte:

- “JOSE KAREAGA ARTISAU/ARTISTA 1930-2008” (*Oxford Aretoa -ZUMAIA-*)

### Uztailaren 31ra arte:

- ARTURO GONZALEZ ASCASOREN ARGAZKIAK ETA M<sup>a</sup> LUISA RUBIOREN POESIAK (*Eibarko Klub Deportiboa*)
- “SAHARAR KANPALEKUAK” JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKIAK (*El Ambigú kafetegia*)
- “ARGAZKI RALLYA 2018” (*Portalea jatetxea*)

**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, MAIA!, 11n 6 urte potolo beteko dozuz- eta. Primeran ospatu! Laztan mordua etxekeun eta, batez be, Telmon partez!!!




Zorionak, TELMO, aurreko zapatuan 4 urte egin zenduazena eta. Musu bat etxekeun eta, batez be, Lukenen partez.



Zorionak, ARHANE, gaur 2 urte egiten dozuzelako. Musu haundi bat Ekain eta Hiart zure lehengusu-lehengusiñen partez.



Zorionak, IZEI, zure 3. urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, bereziki, Iban eta Aratzen partez.



Zorionak, ANETTE, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez, eta segi holako alai.




Zorionak, NAHIA Arriaga Ormaetxea, lehen urtetxua emon dozu-eta gure artian. Patxo potolo-potolua famelixaren partez!!!



Zorionak, LUKEN (domekan 3 urte beteko dozuz) eta tia SILBIA (aurreko domekan urtiak egin zenduazena). Musu haundi bana famelixaren partez.



Zorionak, IZARO eta IRATI, hillairen 3an 4 urte bete dozuez-eta. Patxo pillo bat etxekeun partez.



Zorionak, JON (7 urte, ekaiñaren 28xan) eta LORE (13 urte, uztaillaren 22xan) urtiak betetzen dozuez-eta!! Milla musu famelixaren partez!



Zorionak, NAIA (haraiñegun, 9 urte) eta JON (atzo, 4) urtiak bete dozuez-eta. Famelixaren partez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Iggailua. Erabat ekipatuta. Tel. 645-728317.
- Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 618-854121.
- Logela alokagai. Merkea eta erroldatze-ko aukerarekin. Tel. 632-271530.
- Pisua alokagai Ermuko erdialdean. Sukaldea, 2 logela, egongela, komuna eta despentsa. Tel. 669-209183.
- Logela alokatuko nioke lana duen pertsona arduratsu bati. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Whats-App 688-811214.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Arrate Bide 17an. Tel. 639-491422.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskeitzen da goizez umeak eskolaran eman eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 676-553093.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-798284.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-083081.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 612-273591.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-914989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-505258.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 670-032797. Elia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-155413. Lina.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-534197.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 617-610706. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak (etxean zein ospitalean) edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-941067.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-709827.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-197831 eta 631-624304.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-993066.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-436462.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (pisu, pegora, taberna edo soziedadetan) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-426847.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 630-566556.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-271530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-233514.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-482203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-835745.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko (10:00ak arte). Tel. 617-628137.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-502177.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-246361.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-384944.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-805869.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 652-894575.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita gauez eta asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 655-677035.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-634777.
- Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztailean. Tel. 688-802408.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta jostintza lanak egiteko. Tel. 604-352707.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak (baita gauez eta ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 689-571882.
- Gizonezkoa eskaintzen da sukaldelaguntzaile jarduteko edo zamalanak egiteko. Tel. 643-272992.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272994.
- Gizonezkoa eskaintzen da zamalanak egiteko, altzariak muntatzeko eta ehungintzan lan egiteko. esperientzia. Tel. 643-272996.
- Mutila eskaintzen da kamarero, okin edo pizzero moduan lan egiteko. Tel. 643-272978.

## 4.2. Langile bila

- Banatzaileak behar dira ...eta kitto! aste-karia banatzeko. Tel. 943-200918 eta 943-206776. etakitto@gmail.com
- Pertsona behar da frutatadenda batean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 647-573356.
- Emakume euskalduna behar da emakume nagusia zaintzeko. Tel. 656-736509.
- Monitorea behar dira abentura jarduetarako (paintball). Tel. 660-450245. Ainhoa.
- Autonomoa behar da, furgonetarekin, abuztuaren paketeak banatzeko Eibar inguruan. Tel. 616-642631.
- Ilepainitzaile behar da Eibarko ilepainitzaile batean. Esperientzia eta estetika eza-gupenak eskatzen dira. Tel. 943-567232.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Bateria klaseak ematen ditut. Tel. 669-649535.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Esku-ohesa salgai, gorputz eta aurpegiko tratamendu eta masajetarako. Oso egokia onean. Tel. 696-359677.
- Binilozko disko, single eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Bizikleta salgai 12-16 urte bitarteko gaztearentzako. Gutxi erabilita. 100 euro. Tel. 650-022371. Itziar.

### 6.4. Bestelakoak

- Itzioko 4. Mailako liburak behar ditut. Tel. 688-890837.

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eu

Lanerako gertu!

2018-2019

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

» Oñati gestio  
heziketa

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75  
75 URTEZ JAKINTZA SJUSTATUZ  
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

**Matrikula**

Uztailaren 12-13-16-17-18

**Eskaintza akademikoa**

**OÑATI GESTIO HEZIKETA**

**MGEP**

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)  
943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91 • 664 277 592

**ARRATE BEZPERAKO**  
**bertso-afaria** **IRAILAK 7**  
OSTIRALA 21:00  
KANTABRIA



**ANDONI**  
*Egaña*



**AITOR**  
*Sarriegi*



**MATALEN**  
*Lujanbio*



**SEBASTIAN**  
*Lizaso*

*Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika*

Hilaren 13ra arte: ...eta kitto!-n, bazkideentzat (2 sarrera bakoitzak)

**SARRERAK SALGAI** 14tik aurrera: Kultu, Sagarbitza eta Kantabrian

32€



**UDAKO  
KANPAINA**  
Aprobetxatu  
deskontu bereziak



[www.gaes.es](http://www.gaes.es)

**Bidebarrieta, 2 • T. 943 20 61 14 • eibar@gaes.es**